

ARGIA

***“Administrazio
publikoei eskatu
behar diegu
desazkundera
planifikatzeko”***

Rafa Alday

Ekintzaile ekologista

14-18. orriak



2.755 | 2021 / 11 / 21 | 3,90 €



**Altzoko Handiaren
itzulera, hil zenetik
160 urtera**

24 | HISTORIA



**Euskal gatazka:
hainbat ikuspegi,
hainbat memoria**

30 | POLITIKA




**Formol Laborategia,
kontakizun propioa
oholtzan**

42 | KULTURA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #268
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



BURUKO OSASUNA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | UXUE APAOLAZA
- 21 | IÑAKI BARCENA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | IMANOL ALVAREZ
- 23 | ZIGOR ETXEBURUA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 46 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: MIREN AZKARATE BADIOLA
- 54 | BERANDUEGI



42 | **FORMOL LABORATEGIAREN "ALBUM" ANTZEZLANA**

aurkeztu du Peru Iparragirrek erreportaje honetan. Gazteek beren belaunaldiaz egindako obra da eta taldeko hiru kideek azaldu dute ohikoa ez den lan honen mamia eta egiteko modua.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Nekazariekin batera zaindu lurzoru naturala, CO₂ biltegi handiena eta biodibertsitate altxorra

Pello Zubiria

14 | JENDEAK | RAFA ALDAY

"Planetak ez du arazorik, geuk ditugu bizirik jarraitzeko zailtasunak"

Reyes Ilintxeta

24 | HISTORIA

Altzoko Handiaren itzulera

Urko Apaolaza

30 | POLITIKA

Nola kontatu behar da euskal gatazka?

Xabier Letona

34 | EUSKARA

Aizu! Euskara ikasleen aldizkariak 40 urte

Miel A. Elustondo

46 | KULTURA

Jordi Fornas, katalantasunaren grafista

Julen Azpitarte

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Bizkartzainak

Munduan iparreko errinozero zuri bi baino ez dira geratzen. Biak emeak. Najin eta Fatu, ama eta alaba. Etsi-etsian espeziea salbatzeko azken ahaleginean, 2018an hil zen azken arrari hartutako espermarekin intseminatzen ari dira. Ez dute emaitzarik lortu, eta gainera, berriki Najin (irudikoa) obuluak hartzeko prozesutik erretiratzea erabaki dute zientzialariek, "arrazoi etikoengatik". Espeziearen patua animalia bakarraren gainean da egun. Eta bien bitartean, bi animalio, egunero eta 24 orduz, militarrez babestuta bizi dira Kenyako erreserba batean. Munduko azken biak ere hil eta sal ez ditzaten gizakiek.

 JUSTIN MOTT  AXIER LOPEZ





Klimaren goi-bileraren emaitzarekin “dezepzionatuta”

LEIRE ARTOLA ARIN

Bi astez klima larrialdiari aurre egi- teko akordioak adosten aritu dira munduko agintariak. Gehien kutsa- tzen duten estatuek presionatuta, azken zirriborroan jasotako erabakiak hasiera- koetatik moldatu egin dituzte: adibidez, ez dute ikatza baztertzeko eskaria egin, baizik eta “pixkanaka murriztekoa”.

“Azalekoa” da klima larrialdiari irten- bidea emateko nazioarteko mandatariek Glasgown lortutako akordioa, Ekologis- tak Martxan taldearen iritziz. “Amorra- garria eta etsigarria” da, Fridays For Futureko ekintzaile gazteen esanetan. “Otzana eta ahula”, Greenpeacek salatu duenez. Bi astez Eskoziako hirian bil- duta egon ostean, COP26 goi-bilerako parte hartzaileek ez dute erdietsi ekolo- gista eta eragile sozialak, ezta hainbat estatuburu aseko dituen hitzarmenik.

Irene Rubiera Ekologistak Martxa- neko bozeramaileak kritikatu du “edo- nork” sinatuko lukeela hitzarmen hori: “Klima larrialdiaren aurka borrokatu

behar dela dio, baina ez du zehazten ez noiz ez nola egingo den, ezta zein finan- tziazioarekin”. Izan ere, hartutako eraba- kiak ez dira lotesleak.

Klima larrialdiaren aurka borrokatu behar dela dio akordioak, baina ez du zehazten ez noiz ez nola egingo den, ezta zein finantziazioarekin. Hartutako erabakiak ez dira lotesleak

Halere, orain arte kontuan hartu ez diren hainbat auzi mahaigaineratu di- tuzte bileran, eta, besteak beste, ikatza eta energia fosilak baztertzearen ingu- ruko eztabaida “aurrerapausoa” izan

dela aitortu du Jennifer Morgan Green- peacen nazioarteko zuzendariak; bai- na gogorarazi du azkenean adostutako erabakia “ahula” dela. Akordioa xteko azken orduetan, zirriborroko esaldi bat aldatu dute Indiako ordezkariaren pre- sioei erantzunez: ikatza energia iturri moduan “erabiltzeari uzteko eskaria” egin ordez, hura “pixkanaka murrizteko eskaria” egin dute.

HERRIALDE POBRETUAK BAZTERREAN

Bestalde, herrialde pobretuengan begi- rada jartzea positiboa iruditu zaie eko- logistei, baina haiek “albo batean” utzi izana salatu dute. Fridays For Futurek kaleratutako oharrean adierazi duenez, Erresuma Batuko Gobernuak duen muga politikak klima aldaketak gehien erasan- dakoen ahotsak “are bazterrerago” utzi ditu: “Lehen lerroko aktibistek borroka egin behar izan dute haien ahotsak en- tzun daitezen, eta, bitartean, erregai fos- silen 500 sustatzaile baino gehiagori on- gietorria eman diete goi-bileran”. Estatu aberatsek herrialde pobretuei emateko asmoa duten finantziazioa behar dute- netik “oso urrun” dagoela kritikatu dute.

Halaber, Morganek Greenpeacen izenean adierazi du hitzarmenean “isu- riak hamarkada honetan murrizteko” beharra onartu duten arren, konpro- miso hori datorren urterako utzi dute- la; ohartarazi du krisi klimatikoan hazi direnek ez dutela horrelako emaitza- rik onartuko. Goi-bileran adostu dute isuriak %45 murriztea 2030. urterako, horrela planetaren berotzea 1,5 gradu baino handiagokoa izan ez dadin mende amaierarako, industriaurreko datuekin konparatuta. Morganek eskatu du ho- rretarako neurriak “ezarri” egin behar direla.

Ikusi beharko da erabakitakoa bete- tzeko zein pauso hartuko dituzten au- rrerantzean. Hurrengo goi-bilera Egip- ton egiteko intentzioa dute nazioarteko estatu ordezkariak, 2022an. ●



Fridays For Futureko ekintzaileek salatu dute erregai fosilen sustatzaileek erabakietan parte hartzea.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Muga



ARITZ GALARRAGA

Mugan jaio nintzen. Tira, teknikoki Donostiako Arantza-zuko Amaren ospitalean, baina ulertzen da: kontzienteki mugan jaio nintzen mundura. Ez mugaren alde batean edo bestean, mugan berean. Niretzat gauza bakarra baita Hondarribia, Irun eta Hendaiak osatzen duten partzuergo, eurohiri edo dena delakoa. Dei diezaiozun Txingudi. Nik neuk ez ditut ulertzen, ezin, bata besteak gabe, zera bereko auzo bailiran, nahi bada bat gehiago logela, bestea bizigarri, laketoki hirugarrena, trukagarriak izanik hirurak ere. Batetik bestera naturaltasun osoz ibil naiteke –azalaren koloreak laguntzen dit, noski-. Muga, hain justu, hiru horietako batetik harago joatean legoke Txingudiko biztanle batentzat. Miguel Sanchez Ostizek Iruñea-Donostia-Baiona arteko triangeluan kokatzen zuen bere mundua. Ezagun da Pio Barojak Bidasoako errepublika aldarrikatu izana. Apalagoa da nire aberri txikia, munduan ainguratzea, behin eta berriro itzuliko naizen lekua, Txingudiko bazterrek osatzen dutena.

Mugaz hitz egiten hasi, eta burura etorri zait Trieste, gaur egun Italian, Eslovenia mugakide, hiru munduren arteko gurutzaleku: germaniarra, balkanikoa, latino. Eta hiru horiek kontuan izan ezean osatugabe. Multikulturala, poliglota, mugaldekua, trasnazonala, Claudio Magris litzateke ordezkari behinena, baina paisaiaren parte dira Italo Svevo, Umberto Saba, Marisa Madieri, Boris Pahor, James Joyce bera, hamar urtez bertan bizi izan zena. Txingudi, gure Trieste partikularra, xumeagoa litzateke honetan ere, eta Irene Nemirovski, Carlos Blanco Aguinaga, Pablo Sastre, Marie Louise Legorburu, Extefana Irastortza litzuke ordezkari. Eta etorkizun ezin ederrago bat: hizkuntza, kultura, identitateen pasaleku, harrera gune, malgu, iragazkor, irekia, aberri txiki, munduan ainguratze, behin eta berriro itzulitzeko moduko lekua, Txingudiko bazter hauek osatzen dutena. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



AHT

Bernardo Ciriza Lurralde Kohesiorako kontseilariak Nafarroako Castejon-Campanas AHTko trenbide zatia 2026rako martxan izango dela iragarri berri du, eta Sustrai Erakuntzak gogor kritikatu du ekinbide horri 200 milioi euro ematea.

Euskara

Nafarroako Gobernuaren euskara planari "anbizioa" falta zaiola salatu dute Kontseiluak eta Behatokiak. 67 zuzenketa egin dizkiote. Kritikatu dute araugintzaren bidean ez dagoela aldaketarik eta horrek "eskubide urraketen betikotzea" dakarrela.

Xilaba

Ametz Arzallusek jantzi du Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari txapelketako txapela, buruz burukoan Miren Artetxerekin aritu ondoren. Ondotik sailkapenean gelditu dira Odei Barroso, Maddalen Arzallus, Patxi Iriart eta Maddi Ane Txoperena.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Arkitektoaren zakila



ULA IRURETAGOIENA

Donostiako arkitektura fakultatea albiste izan da gertaera tamalgarri batengatik. Irakasle bat performance lotsagarri baten aktore eta protagonista izan da, zakila ikasleen aurrean atera due-nean. Ekintza izan zeneko xehetasunen jakitun ez naizenez, ez nago gertakaria saskon aztertzeko baldintzetan. Baina nago, alderdi guztietatik begiratuta ulertezina, deitoragarria eta salagarria den gertakariak testuinguru baten berri ematen digula eta argitara ekartzen duela arkitektoaren maskulinitate izaera zehatz bat. Egun arkitekto perfil dibertsifikazioa egia boro-bila den arren, oraindik aktibo dago garai batean zedarrituriko arkitekto-maskulinitatearen itzala. Arkitekturaren lanbidea zeharo aldatu da azken hamarkadetan; lan panoramak zerikusi gutxi du arkitektoaren figura orojakile eta ahalduna eraiki zeneko garaia erekin: gutxiago eraikitzen da, lan baldintza txarretan, eraikuntza epe oso azkarretan, eraikuntzaren jakintza geroz eta konplexuagoa da maila administratiboan, legalean, kudeaketa-mailan... Eta oraindik ere, arkitektoaren egitekoa arrotza –ez nahitaezko lan bat– kontsideratzen da –aurreztu daitekeena–. Baina honek guztiak arkitekturaren profesioaren orainaldiaz diharduen arren, gaurko arkitekto belaunaldiak –ni barne– garai bateko arkitektoen ikasle –seme-alabak– gara. Denbora gehiago beharko da “aitaren heriotza” gertatu dadin.

Arkitektoaren zakila harropuzkeria maskulinoarekin loturan dagoela esatera ausartuko nintzateke. Arkitektoa, goi kulturaren parte sentitzeagatik, egoera arruntan gainetik kokatzen da, sibirita eta gustu dotorearen klasearen domina bere buruari eskainia. Segurtasun leku hori eskuratu-ta, desberdintasun goratuaren eserlekuak errealitatea hutsaltzeko arrisku handia du, eta larriena, naturalizat jo dezake besteen kontrako gehiegikeria eta jazarpena. Eta maskulinoa da, deskribaturiko arkitekto-figura historikoaren sortzailea gizonezko arkitektoa delako. Nahasmendu honi gehitzen badiogu bizi dugun maskulinitatearen kultura, atera kontuak. ●

ANALISIA



TANO DAMICO

Etxebizitza, auzi feminista

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Bilboko txabolismoa du ikergai Iñigo López Simónek, eta fenomeno hura aztertzerakoan genero ikuspegia kontutan hartzearen garrantziaz mintzo zen berriki argitaratu dugun elkarrizketan. Gizonak ez bezala, sexuaren arabera ko lan banaketak emakumeak ia egun osoz lotzen zituen etxoletara, eta horrek bilakatu ditu baldintza duinak ez zituzten bizileku haietaz hitz egiteko testigu fidel. Pentsatzekoa denez, beren egunerokoa etxeari hain lotua egoteak bultzatu zituen 1905ean hainbeste emakume Barakaldoko alokairuen greba aurrera eramatera, azpimarratu izan denez borroka hartan emakumeak nabarmendu baitziren.

Garaiak aldatu dira, eta emakumeok lan-merkatura sartzeak murritzitu egin du etxean ematen dugun ordu kopurua. Askatzaile izatetik urruti, baina, aldaketak emakumeak zamatatu ditu lanaldi bikoitzarekin –etxeokarekin eta etxetik kanpo-koarekin–, eta hanka bat eremu publikoan izanik ere, gehienbat emakumeek segitzen dute izaten etxebizitza arazoan aurrean esku-hartzeko joera. Kataluniako DESC behategiak egindako ikerketa baten arabera, etxeok eta zaintza lanetan egozten zaien erantzukizunak bultzatzen ditu etxebizitza arazoaren aurrean esku hartzera.

Emakumeak etxebizitzagatik borrokatzera bultzatzen dituen bestelako faktorerik ere bada ordea. Lan-merkatura jauzi egiteak diru-sarrera propioetara atea ireki arren, tratua tranpatia suertatu da, soldatapeko lanaren truke jasotzen dugun ordaina urriagoa izan ohi baita. Lerro batzuk gorako aipatutako ikerketak dioenez, norbanakoen diru-iturriek behatuz gero, emakumeen %49a pobrezia arrisku egoeran legoke. Kaudimen ekonomiko estua izateak –edo halakorik ez izateak– etxebizitza duin batera sartzea ez ezik, bertan mantentzea ere zailtzen digu, eta beren kabuz teilatupe bat ordaintzeko ezintasunak behartzen ditu emakume asko tratatu txarrak ematen dizkien pertsonekin bizitzera. Alegia, etxebizitzaren aldeko borrokaren feminizazioa ematen bada, prekarietateak eta etxebizitza arazoak emakume aurpegia izan ohi duelako da.

Etxe batera sarbidea bilatzean, kaleratze baten aurrean... gurutzatzen gaituen egiturazko zapalkuntza oro erreproduzitu egiten da etxebizitzaren alorrean, eta zenbaitetan, gainera, indarkeria instituzioen eskutik joan ohi da. Horren adibide gordinik baldin bada, Batu Elkarlaguntza Sareko kide Joaquirena da. 1997an bannandu zen tratatu txarrak ematen zizkion gizonarengandik, eta beldurragatik, ondasun-banantzean erasotzaileari eman zion etxebizitzaren usufruktu eskubidea. Ordutik bertan bizi izan da alaba eta bi bilobekin, baina behin genero-indarkeria delitua preskribatuta, erasotzaileak salaketa jarri dio eta epaileak haren alde egin du. Azaroaren 25eko data darama agindutako etxe kaleratzeak. Aurten, beraz, protestatik ekintzara igarotzeko eskakizuna dakarkigu data seinalatuak. Joaqui, haren alaba eta biloben etxe kaleratzea gelditzea indarkeria matxistatik gabeko bizitzak exijitzea baita. Feministok, kaltetu zuzen izan edo ez, badugu fronte bat etxebizitzaren aldeko borrokan. Etxebizitzarena, klase eta arraza auzia den bezala, genero auzia ere bai baita. ●

Lanpostu publikoa egonkortzeko akordioa

 LEIRE ARTOLA ARIN

Hego Euskal Herriko administrazio publikoko langileei eragingo die Espainiako Ogasun Ministerioak, Unidas Podemosek, ERCK eta EAJk lortutako akordioak. Behin-behinekotasun tasa epe laburrean txikitzea da itunaren helburua.

Funtzio publikoko lanpostu berean bost urte edo gehiago daramaten ordeko langileek ez dituzte oposizioak egin beharko langile finko bihurtzeko; “merizimenduak” egiaztatzeko deialdi batera aurkeztu beharko dute, erakusteko euren lanpostuaren baldintzak betetzen dituztela. Lege erreforma horrek balioko du enpresa, fundazio eta partzuergo publikoetan dihardutenentzat ere.

Hego Euskal Herriko langile publikoen ia %40 ez dira finkoak, eta azken urteetan oso oposizio deialdi gutxi egin dira. Itun horren bidez, datozen bost urteetan behin-behinekotasun tasa %8ra jaitsi nahi du Espainiako Gobernuak. Akordioan baldintza batzuk zehaztu dituzte: lanpostua bost urtez etenik gabe betetzea, 2016ko urtarilaren 1az geroztik izatea, ezohiko neurria izatea, eta eskaera behin bakarrik egin ahal izatea. Gainera, administrazio bakoitzak arau eta baldintza propioak jarriko ditu.

Lege erreforma Espainiako Kongresuko batzordean eta osoko bilkuran onartu beharko dute, baina ituna adostu dutenen babesa nahikoa da gehiengo lortzeko eta legeak aurrera egiteko.

EUROPATIK OHARTARAZPENA

Espainiako Kongresuan eztabaidatzen ari dira funtzio publikoko langileen egonkortze legeak, eta epe laburrean erregulatu nahi dute behin-behinekotasuna. Izan ere, ekainean Europako Justizia Auzitegiak Espainiako Gobernua ohartarazi zuen: lanpostu publikoetako behin-behineko kontratuak hiru urte baino gehiagorik luzatzea “neurritz kanpoko” da auzitegiaren arabera. Espainiako araudiak jasotzen du oposizioak egin behar direla hiru urtetik behin, langileak finkatzeko, baina bereziki azken urteetan ez da hori bete. ●

“EAJk urteetan zehar eraiki duen sare klientelar handiaren pieza bat dira ate birakariak”

MADDALEN IRIARTE

Arlo publikotik enpresa pribatueta goi karguetara zuzenean salto egitea eragozteko lege proposamena aurkeztu du EH Bilduk.

2021-11-09



“13/13 IRAGANEKO GARAIETAKO SUMARIOA DA”

Zuzenbidean adituak diren ehun legelari inguruk 13/13 auzian izan diren irregulartasunak salatzen manifestua kaleratu dute. Besteak beste, deitoratu dute Espainiako Auzitegi Nazionalan izandako auzi saioetan fiskaltzak izandako jarrera.

2021-11-11

“Gainerako taldeekin alderatuta, baliabide gutxi dugu. Horrelakoak eskatu ditugunean, printzesa apetatzen moduan tratatu gaituzte”

MÉLISSA HANNOUNI

Baionako ASB errugbi taldeko jokalaria da bera. Azaro hasieran planto egin zuten, Elite 1 mailako gainerako taldeekin alderatuta baliabide gutxi dutela eta taldeko arduradunek euren eskaerak aintzat hartzen ez dituztela azalera ateratzeko.

FRANCE BLEU (2021-11-08)



TEKNOLOGIA

Zentsura algoritmikoaren garapena



DIANA FRANCO

Azaro hasieran 24/2021 errege dekretua ateratu zen, Europako Merkatu Digital Bakarreko egileen eskubideei lotua. Ez naiz legeetan aditua, beraz gai hau nire hizkuntzan eta ulermen gaitasunetara itzuli dut eta zenbait hausnarketa partekatu nahi ditut zuekin.

Lege honen bidez, plataformak bi-tartekari izatetik igaroko dira euren sistemetan dauden edukien erantzule izatera. Beraz, egile eskubideen jabeak diren pertsonak edo erakundeak babes-tu behar dituzte plataformek, eta ezin dute baimendu eskubide hauek urratzen dituzten edukiak igotzea edo zuzeneko emisioak egitea. Lege zigorra izan dezakete horiek kontuan hartzen ez dituztenek.

Legeak alde onak eta txarrak ditu. Noretzat da kaltegarria? Epe laburrean plataforma handientzako, euren negozio eredia sustatzeko boterea galtzen dutelako. Epe laburrean, baita plataformen baitan eta eduki hauen inguruan euren bizimodua sortu duten pertsonentzat ere. Epe ertainean, denontzat, zentsura algoritmikoa garatzen den heinean.

Norentzako da onuragarria lege hau? Epe laburrean, edukien jabeentzako – askotan egileak ez direnak-. Beharbada denborarekin egileentzako negozio eredu berriak sustatzeko bideak esploratu ditzaketelako.

Lortu ahal izango genuke emaitza bera zentsura algoritmikoa garatu bari-rik, eta egun euren bizimodua besteen edukia erabilita ekintzaile horiei kalte egin barik?

Ez naiz algoritmoetan aditua, baina zentsura algoritmikoa egin badaiteke, zergatik ez garatu ordainketa algoritmi-koa? Jarom Lanier-eri askotan entzun diot ideia hori. Plataforma handiak izan beharko liratekeela ordainketa egin beharko luketenak, azken finean eurak baitira edukietatik onura gehien lortzen dutenak. ●

NAZIOARTEA

Harresi gehiago

AXIER LOPEZ

Milaka lagun ez aurrera ez atzera daude Bielorrusia eta Polonia arteko muga izoztuan. Kurduak, siriarak, afganiarrak, kamerundarrak, kongoarrak... zero azpian, militarren jazarpenaren erdian, janaria eta ura lortzeko zailtasunekin. Bien bitartean, Poloniako gobernu homofobo eta ultrakontserbadoreak dio arazoa mugaz bestaldeko gobernuarena dela: Bielor-rrusia pertsona horiek erabiltzen ari dela Europar Batasunari presioa egiteko, EBren zigor ekonomikoei emandako erantzun gisa. Ikuspegi berekoak dira EB, NATO eta beste hainbat herrialde.

Poloniak 15.000 bat soldadu bidali ditu, eta berehalako itzulketak eta indarkeria nagusitu dira mugaldean. Larrialdi egoera ezarri du Andrej Duda presidenteak, eta horrek eragotzi du erakunde humanitarioak eta kazetariak gune jakin batzuetara sartzea. Azken bi hilabeteetan, gutxienez zortzi pertsona hil dira mugan.

Bestaldean, Varsoviak ez badu muga irekitzen, Errusiako gasa EBra garraiatzen duen gasbide bat ixteko mehatxua egin du Bielorrusiako Gobernuak, Europa energia krisi betean dagoela. Errusiak "arazoa" konpontzeko proposamena egin dio EBri: Turkiarekin 2015etik egiten den bezala, Bielorrusiari ere diru publikoa ematea, migratzaileak "kudeatzearen" truke.

HESIA NAGUSI

Momentuz, errezetarik ankerrena eta hutsalena ari da gailentzen: hormak. Beste harresi bat, baina oraingoan mugak desagerrarazi omen zituen Europar Batasunean bertan. Poloniako Gobernuak onartu du 2,5 metroko altuerako harresia eraikitzea Bielorrusiako muga. Baina, gaia harago joan da. Zipre, Txekia, Austria, Danimarka, Bulgaria, Grezia, Hungaria, Estonia, Lituania, Letonia, Eslovakia eta Poloniako gober-nuek gutun bateratua sinatu dute honako hau adierazteko: "Legez kanpoko migrazioaren erasoari aurre egiteko, hesi fisikoa babes-neurri eraginkorra da, EB osoaren interesentzat baliagar-ria. Neurri legitimo hori EBren aurre-kontuaren kontura finantzatu beharko litzateke, lehentasunezko gai gisa". Eu-ropako Parlamentuan gehiengo duen alderdiak, Europako Alderdi Popula-rrak, eta Charles Michel Europako Kon-tseiluko presidenteak berak babestu dute harresiak altxatzeko finantzaketa publikoaren eskaera.

Irtenbide zaharkituak gaur egungo arazoentzat. Hesiak ez dituzte inoiz beharrak mugiarazitako pertsonak gel-diarazi. Lortu duten bakarra zeharbide berriak sortzea izan da, baina arrisku-tsuagoak eta tragikoagoak, giza-trafi-koaren nazioarteko mafientzako tes-tuinguru egokia sortuz. ●

GORABEHERAK



Kolegio berria izango du Seaskak.

Udalak eskainitako 10.000 metro koadroko lursailan kokatua, 200 ikasle ingururentzako espazioarekin, ikastetxea 2023an irekitzea da asmoa. Seaskaren bosgarren kolegioa izango da.

Emakume bat hil da Iruñeko presondegian.

Salhaketa elkarteak jakinarazi du emakume bat zendu dela azaroaren 8an Iruñeko kartzelan. Gaizki zela, zeldako bizikideak abisua eman zien presondegiko langileei, baina hauek ez zuten behar bezain laster erantzun, Salhaketaren hitzetan.



Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak argitara

📷 IRANTZU PASTOR

MUNDUA / Irantzu Pastor argazkilariak eta Igone Mariezkurrena kazetariak 63 emakumeren bizitza-historiak bildu dituzte *Luminiszentek* erakusketa eta liburuan. Egiturazko indarkeriaz gain beste indarkeria ikusezinak jasaten dituztenen testigantzak bildu dituzte Palestinan, Indian, Lakota Nazioan eta Euskal Herrian egindako bidaetan.



NEKAZARIEKIN BATERA ZAINDU LURZORU NATURALA, CO₂ BILTEGI HANDIENA ETA BIODIBERTSITATE ALT XORRA

COP26 biltzarraren bezperan, planeta osoko laborarien bozgorailu izan nahi duen Via Campesina saiatu da klima are gehiago zora ez dadin bere proposamena zabaltzen Hararetik (Zimbabwe): “Aldarrikatzen dugu aitortua izan dadila nekazaritza agroekologikoak, basogintza iraunkorrak eta lurzoruaren erabilera hobeak zenbat lagundu dezaketen gas isuriak gutxitu, karbonoa lurrean bahitu eta erresilientzia eraikitzen”.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Klimaren aldaketari erremedioa jarztearen inguruan munduko agintariek Glasgown antolatutako COP26 biltzarrari egindako proposamena da Via Campesinarena –ez aurretik garbi utzi barik suntsiketa ekologiko eta sozialaren erantzule nagusiak multinazionalak eta horien zerbitzuko aginte politikoak direla–.

Aldarrikapenaren muina hau da: onartuta berotegi gasen –nagusiki CO₂ eta metanoaren– isuriak murriztea dela premiazkoena klima aldaketaren kalte gogorrenak saihesteko, baserritarrek eskatzen dute lehentasuna eduki dezala “lurzoruaren erabilera hobe bat” sustatzeak. Horretan bat egin dute zientzialariek gero eta gehiago lurzoruaren kudeaketari ematen dioten garrantziarekin, batetik lurraren erabilera txarrak larriagotu egingo duelako klimaren zoratzea eta bestetik kudeaketa on batekin lurzoruek asko lagunduko dutelako atmosferan soberan den CO₂ a lurreratzen. Zelan ez ote dugu mezu hori gehiago nabarmendu klima aldaketaren albiste eta analisi uholdearen erdian?

Lurzoruak planetaren biosferan daukan garrantzia maisuki azaldua du Marc-André Selosse biologo eta ikerlari frantsesak aurrean bertan argitaratutako liburu antologikoan: *L'origine du monde. Une histoire naturelle du sol à l'intention de ceux qui le piétinent* (“Munduaren jatorria. Lurzoruaren historia naturala

hura zanpatzen dutenei azaldua”). Hasiarik ohartarazten duenez, lurzoruko ekosistema aberatsak arazo handi bat dauka: ez ikustez gain, ezagutu ere ez dugula egiten planetak daukan biodibertsitatearen gehiena, gure oinpean daukaguna.

Hasteko, bistan dauzkagun landareak apenas ezagutzen ditugu osorik, landare baten biomasaren herena lurpeko sustraiek osatzen dutelako, batez beste. Noizbait haizeteak erauzitako zuhaitz bat ikusi dugunok uste izan dugu bere erro eta guzti osorik azaldu zaigula, baina ezkutuan geratuak ziren zain lodi eta sendoenak, lurpeko sarearen gehiena. Hori hala bada landareekin, askoz handiagoa da erabat lurpean bizi diren izakiekiko gure ezezagutza, zientzialariena barne.

Ilunpean bizi diren animaliei dagokienez, handienak ditugu ezagutzen, oso gutxi ordea zizarea baino txikerragoak, eta bereziki mikrobioak. “XIX. mendetik zientzialariek egindako lana gorabehera –dio Selosse– diren mikrobio guztien %90 geratzen zaigu ezagutzeko, eta zehazki lurzorueta bizi direnen %99a iristen da! Ehun urtetan mikrobio espezieen %1 baino gutxiago ezagutu dugu”.

Ezkutuan bizi dira ez animalia eta ez landare ez diren ondokoak ere, zeinetako batzuen ‘loreak’ ikusten ditugun baina ez lurpean zabaltzen dituzten mizelioak, sare oso sarriak osatzen dituz-

tenak: hektarea bateko lurpean dauden mizelio guztien pisuak berdindu omen dezake... hamar behirena! Planetaren klimaren orekan funtsezko garrantzia daukate lurpeko izaki guztiok, bizirik direnek gehi birziklatze bidean diren hildakoek, osatzen duten masa handiak.

USTELAK LURPERA

Planetaren beroketa eragiten duten gasak –alde batera utzirik ur lurrina– hiru dira nagusiki. Batetik CO₂ karbono dioxidoa, atmosferan kopuru txikian egon arren negutegi efektuaren %26 eragiten duena. Beste biak dira metanoa eta N₂O oxido nitrosoa, are kontzentrazio txikiagoan egon arren beroketaren %6ren errudunak, oso arriskutsuak atmosferan oso biziraupen luzea daukatelako.

2015ean COP21 biltzarraren bezperetan, Stéphane Le Foll Frantziako Nekazaritza ministroak aldarrikatu zuen publikoki *4 Pour 1000* (Milako 4) ekimena, bere eginez hainbat zientzialariren proposamena. Merezki luke herritarrek ezagutzeko osorik “*Milako 4: lurzoruak klimaren eta elikadura segurtasunaren alde*” deitzen den plana. Hona laburbilduta:

Gure atmosferak daukan CO₂ guztia- ren bikoitza edo hirukoitza datza lurzoruetan. Hau da, atmosferan baldin badaude 820 Gt (gigatona, bakoitza 1.000 milioi tona) karbono, lurzoruetan metro beteko sakoneran 1.500-2.400 Gt dauz-



HESI BIZIAK

birlandatu behar dira lurzoruek galdutako gai organikoa berreskura dezaten. Argazkian, Ersteinen (Alsazia) kaletarrak heskai landaketan laguntzen baserritar bati. Argazkia: DNA

kagu pilatuta, horietatik 800 Gt lehen 30 zentimetroetan. Urtero giza jarduerak atmosferari bere isuriekin gehitzen dio 4,3 Gt extra, beroketa globala areagotzen duena.

Milako 4 abiatzen da aritmetika erraz honetatik: lurzorua 30 zentimetro horietan metatutako karbonoa urtero %0,4an gehituz gero –alegia, 3,2 Gt– hein handi batean konpentsatuko litzatekeela atmosferara igorritako CO₂ gehiegizkoa. Esan gabe doa nekazaritzan egin beharreko ahaleginaz gain gainerako jardueren isuriak murriztu behar direla –industria, azpiegitura, zerbitzu...–.

3,2 Gt karbono horiek gehitzeko, funtsean lurzorua osagai organikoa handitu behar da eta *Milako 4*-k propo-

satzen du laborantza industrialak azken hamarkadetan ezarritako kudeaketa eta errutina aldatzea. Batetik, gai organikoaren galera saihestu –ez gehiago erre landare hondarrak, murriztu edo baztertu goldatzea, deforestazioa gelditu, eta abar–. Bestetik, gai organiko gehiago metatzeko lurzorua etengabe estalita eduki, baita uzta nagusien lerro artekoa ere, goldatu gabe ereiteko teknikak zabaldu, berriro zuhaitz, zuhaixka eta heskaiak ezarri soro ertzetan eta baita barruan ere, simaur eta konpostez hornitu soro eta zelaiak, uraren kudeaketa ona ezarri...

Milako 4-ren sustatzaileek diotenez, “munduan badaude 570 milioi etxalde eta 3.000 milioi baserritar neurri guztioi ezarri ahal izango lituzketenak. La-

borantza lurrak beren onera ekartzeko dozena batzuk dolar hektareako inbertitu beharko lirateke”.

Ez da gutxi lurzorua kudeaketa ona egiten duten milioika baserritar txiki aitortzea janariak ekoizteaz gain klima eta biodibertsitatea zaintzen egiten duten lana. Baina laster ikusiko da klimaren aldeko suharrean, agintariekin erabakiko duten laguntzea nekazari txiki, ala lurzoria zaintzeko diru publikoak joango diren –berriro ere– justu klimaren izorratzaileen sakeletara.

Gainerakoan, kaletarrek noizbait hasi beharko dute galdezka ea nola segitzen duten lurzorua artifizializatzen eta hirietan sortutako hondakin organiko mendiak alferrik galtzen: lurra altxor ustelkor horien gose da! ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Rafa Alday

PANKARTAREN BI ALDEETAN

“

PLANETAK EZ DU ARAZORIK, GEUK DITUGU BIZIRIK JARRAITZEKO ZAILTASUNAK

”

Klima-aldaketa eta erregai fosilen eskasia dira gaur egun jada bertan ditugun arazo askoren sorburuak. Uholdeak, suteak, pertsonen migrazio masiboak eta hornidura arazoak gero eta ohikoagoak dira eta izanen dira. Rafa Alday ekintzaile ekologista eta adituaren ustez, desazkundera da bide bakarra.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nola iritsi zinen ekologiaren aktibismora?

Gaztetan KEMen sorreran hartu nuen parte eta militarismoaren aurkako mugimendu honek eta ekologismoak bat egin zuten neurri handi batean, batez ere zentral nuklearren aurkako borrokari dagokionean. 70eko hamarkadan Euskal Herrian aldarrikapen hori oso zabaldua zegoen eta nik nuklearren aurkako batzordeetan eta mobilizazioetan hartzen nuen parte. Gladys del Estalen lagun mina nintzen eta bera hil zuten Tuterako mobilizazioan berarekin nengoan. Epaietan lekuko gisa deklaratu nuen. Horrek eraman ninduen inplikazio handiagoa izatera borroka hartan.

Armintzako nuklearren aurkako taldean aritu nintzen. Lemoizko zentralaren kontrako ekintza ez bortitza egin genuen hainbat hilabetez, eta militarizazio ikaragarriarekin erantzun ziguten. Esperientzia hura oso garrantzitsua izan zen. 1980an Lakabeko komunitatea sortu genuen gaur egungo zibilizazioari alternatibak bilatzeko helburuarekin eta han bizi izan nintzen 20 urtez. 2003an hasi nintzen profesionalki lanean ingurumenaren alorrean. Militantziatik nator. Pankartaren bi aldeak ezagutu ditut eta ikusten dudana da bietan ezintasun handia dagoela. Borroka ekologistan batzuetan garaipen txikiak lortzen dira, baina zibilizazio honek nora eramaten gaituen

ikusten ari gara gaur egun argi eta garbi. Zorionez zentral nuklearrik ez dugu Euskal Herrian, adibidez, baina garapeneredu guztiz predatzailea bai.

Zertan aldatu da ekologismoa azken hamarkada hauetan?

Eredu bat jasangarria den edo hondamendira garamatzen esaten genuenak, mugimendu ekologistak izaten ginen lehen. Gaur egun, ordea, Nazioarteko Energiaren Agentzia da adierazten diguna horrela ezin dugula jarraitu; Nazioarteko Meteorologia Elkartea da ohartarazten duena berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak gora egiten jarraitzen duela edota Nazio Batuen Erakundera da



Rafa Alday Agirretxe

DONOSTIA, 1957



Fisika Zientzietan lizentziaduna. KEM Kontzientzia Eragozleen Mugimendu antimilitarista eta Lakabe ekimenetako sortzaileetakoa da. Zentral nuklearren aurkako aktibista eta ibilbide luzeko ekologista. Gaur egun Nafarroako Gobernurako ingurumen teknikari gisa ari da lanean.

anbizio falta ikaragarriagatik alerta gorrrian gaudela zehazten diguna. Horrela jarraituz gero, ez dugu lortuko mende bukaerarako tenperatura 1,5 edo 2 gradu baino gehiago ez igotzearen helburua. Azkarrago joan behar dugu. Hori izan da Glasgowko bilerara eramanez duten ideia nagusia.

Zergatik da horren larria egoera?

Ekuazio konponezin bati egin behar diogulako aurre. Alde batetik badugu sistema bat kontsumoaren eta ekoizpenaren etengabeko hazkundeaz elikatzen dena eta, bestetik, planeta akitu bat, lehenbiziko alerta-seinaleak ematen hasia da. Gasen isurketak moteldu edo amaitu arren, egun atmosferan dagoen gas kontzentrazioak planetaren beroketa eraginen du milaka urtez. Honetaz gain, argi eduki behar dugu erregai fosilak amaitze bidean daudela eta garestiagoa dela horiek lortzea.

Sistema hori nola aldatu daiteke?

Oso zaila da. Egia da berri on bat dagoela: dagoeneko mundu guztiak, nolabait, ulertu du horrela ezin dugula jarraitu. Baina katuari joarea nork ezarriko dio sistema birbideratzeko? Hor dago koxka. Bi joera nagusi badira klima aldaketaren inguruan: alde batetik tekno-baikortasuna, hau da, teknologiari esker bizi erritmo honi eustea lortuko dugula uste duena, eta, bestetik, desazkundera defendatzen duena horrela jarraitzeko behar adina baliabiderik ez dagoelako. Kontsumoa eta gure ingurumen-inpaktua gutxitzea ezinbestekoa da. Ni joera honen aldekoa naiz. Hori da bide bakarra eta modu positiboan begiratu behar dugu, aukera ematen digulako aberastasunaren banaketa berri bat egiteko eta gertutokura itzultzeko.

Bitxia da nola pandemiaren garaian jendeak berriro gozatu duen gertu duenarekin eta ez Bahametarako bidaiarekin edota nola txalotu dugun osasungintzaren alorreko pertsonen ahalegina, adibidez. Ikusi dugu nola gertukoak inpaktu handi bati aurre egiteko aukera ematen digun.

Administrazioak neurri gogorak hartzeko ahalmena izan du eta, aldi berean, herritarrok gertutasun balioak errespetatzeko gai izan gara. Baditugu

tresnak, baina gai izan behar dugu horiek erabiltzeko.

Tabakoarena bada beste adibide bat nik maiz erabiltzen dudana: tabakoa espazio publikoetatik kentzeko gauza izan bagara, agintariek CO2 isuriak desagerrarazteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko gai izan beharko lukete. Hala ere, kontuan hartu behar da enpresa gutxi batzuk direla tabakoarekin lotura zuzena dutenak eta erregai fosiletan inplikaturik daudenak, aldiz, arlo guztietakoak. Hala ere, IPCCk (Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu Arteko Taldeak) ohartarazi digu soilik 2030era arte dugula gure jarrera aldatzeko epea. Petrolioaren erauzketaren gailur gorenera iritsi gara. Hemendik aurrera gutxiago egonen da eta murrizketak datoz. Kontua da kolapsoa eta desazkundera antolatzen dugun edo dena berdina uzten dugun eta salba dadila ahal duena. Administrazio publikoei eskatu behar diegu desazkundera planifikatzeko.

Lurrak ez du batere presarik. Planetak ez du arazorik aurrera jarraitzeko, geuk ditugu bizirik jarraitzeko zailtasunak.

Nola egin daiteke hori kontsumismora emanak bagaude?

Klima-aldaketaren ondorio gero eta latzagoak pairatuko ditugu etorkizun hurbilean, zalantzarik gabe, eta gizarte-kohesioa da erresiliente izateko aukera bakarra.



Diskurtso polita da esatea aldaketa sustatuko dut ezer debekatu gabe, baina ez da errealia: 2019ko irailean larrialdi klimatikoa deklaratu zen"

Gauza probatua da hondamendien aurrean jendarteak antolatzen gaitasuna duela, administrazioak gaituz. Katrina urakanarekin ikusi zen, edo berdin 2019ko Tafallako uholdeetan; batez ere gazteak izan ziren elkartu eta birrindua zegoen herriari buelta emateko gai izan zirenak. Baina horretarako ezinbestekoa da aurretik kohesio sozial sendoa egotea.

Energia berriztagarriak ez dira soluziobidea?

Energia berriztagarriek, materialengatik eta potentziarengatik, ezin dituzte erregai fosilak ordezkatu guk behar dugun bezain azkar.

Nafarroan kontsumitzen dugun elektrizitatearen %74 berriztagarria



Azken hitza

EZ GOAZ ONGI

“Nafarroan klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko gure eskumenetatik kanpo dauden legedien, teknologien eta orientabideen mende gaude, baina eskumenak ditugun horietan ere ez goaz ongi. Next Generation funtsak ez daude kontsumoaren murrizketara bideratuak, bide beretik jarraitzea baizik. Gurean Nafarroako Ubidea, AHT eta halako makro-proiektuak bultzatu beharrean bestelako elkarlan proiektu txikiak bultzatuko baliuzte oso emaitza desberdina izanen genituzke. Zaila da, baina ekonomia beste norabide batean bideratu behar dugu”.

da. Arazoa da elektrizitatea kontsumitzen dugun energia guztiaren %21 baino ez dela. Tenperatura altuak behar dituzten industrietan ordezkapena oso zaila da. Eta berdin kamioi, itsasontzi edo hegazkin bidezko garraioan edota nekazaritzan erabiltzen diren makinetan ere. Hidrogenoa da orain planteatzen dena, baina arazo asko ematen ditu eta engainu berri bat da. Orain baino lehen ere aurreranzko beste ihesaldi batzuk ezagutu izan ditugu, adibidez, bioerregaiak. Zaila da. Orain urrutitik datozen produktuak behar ditugu bizitzeko, bertako ekoizpenetik urrundu garelako. Bizimodu sofistikatu dugu eta ez dakigu zer dagoen horren guztiaren atzetik. Netflix ordubete ikustearen atzean 55 gramo CO₂ isurketa dago, esate baterako. Zaborrak edukiontzira bota ondoren, ahaztu egiten ditugu. Garrantzitsua da jakitea zer dagoen produktu eta zerbitzu guztien bizi-zikloaren atzean.

Beharrezkoa da kultura berri bat eta badira itxaropenerako zantzuak. Adibide bat: herrialde nordikoetan zabaltzen ari da Flygskam edo hegal egitearen lotsa. Suedian sortutako mugimendua da, jendea animatzen duena hegazkinez bidaiatzeari uztera, garraio-modu horri lotuta dauden CO₂ isuri handiak saihesteko. Ez da logikoa asteburu pasa Londresera joatea. Antonio Turiel aditu handiak adibide

bat jartzen zuen: bi lagun Britainia Handiko hiri banatan bizi dira. Egun batean kafe bat hartzeko gelditu nahi zuten eta aukerarik merkeena suertatu zitzairen Malagan elkartzea. Ezin gara bizi halako jokamoldeak zigortzen ez dituen sistema batean.

COVID-19a abisu edo lezio moduko bat izan da?

Bai. Bada lotura argi bat bioaniztasunaren suntsiketa eta gaixotasun birikoen zabalkundearen artean. Naturak eman digun beste alarma bat da. Uholdeak edo suteak beste zantzuak dira. Oraingoz libratzen ari gara, baina gerta daiteke sute menderaezinak pairatzea hemen-txe bertan.

Etorkizuna latza da, baina eutsi egin behar diogu eta ahal den modu baikorrenean. Behar-beharrezkoa dugu utopia berriak sortzea, eszenatoki hurbiletan eta guk dauzkagun balioetan oinarritutakoak, Tafallako gazteek egin zuten bezala, eta, aldi berean, administrazioe-kiko sintonian.

Lidergo sendoa behar da eta agintariek bertigoa sentitzen dute oso erabaki gogorrek hartu behar direlako. Horregatik Greta Thunberg bezalako aktibisten ekarpena oso mesedegarria da. Sinbolo bat da.

Nafarroan, adibidez, esperientzia alternatibo interesgarri asko ditugu abian dagoeneko. Erronka da esperientzia horiek orokor bihurtzea.

Adibidez?

Bioeraikuntza, Landare, Energia GARA, Goiener, Emauseko Trapuketariak, Laka-be, Zorokiain, Oraintxe, ekologikoan ari diren nekazari eta abeltzainak... Iruñeko Udalaren Haur Eskoletan exijitzen da elikagaiak ekologikoak eta zero kilometrokoak izatea, eta hori oso garrantzitsua da



haien karbono aztarna askoz txikiagoa delako. Eredugarria da beste administrazioetarako eta ekoizle ekologikoen zat oso hautu onuragarria. Esperientzia hau ongi atera bada, zergatik ez zabaltu erietxeetara eta administrazioak kontratatzen dituen jantoki zerbitzu guztietara?

Badakigu sistema gaiztoa dela eta agintariak enpresen mende daudela. Zenbat urte kostatu zaio Europar Batasunari esatea telefono mugikorren kargadoreen sistemak bateratu behar direla? Begi bistakoa da hori dirua ateratzeko negozioa besterik ez dela izan eta, hala ere, kosta egin da erabakia hartzea. Baina hori da bidea, eta erabakiak irmo hartu behar dira. Hasieran, lehenengo fasean, jomolde berriak sustatu behar dira. Jendea gonbidatu behar da ohiturak aldatzera, baina gero betebeharrak batzuk ezarri behar dira. Urgentziak sustapen-aldi labur bat izatera eramaten gaitu, eta produkzio-modu jakin batzuek berehala derrigorrezkoak izatera pasa beharko dute.

Diskurtso polita da esatea aldaketa sustatuko dut ezer debekatu gabe, baina ez da erreala. 2019ko irailean larrialdi klimatikoaren deklaratu zen eta zerbait egin behar da pauso sendoz.



Nafarroaren bide orria betetzen ari da?

Gauza batzuk zuzen egiten ari gara, baina adierazleek diote orokorrean ez goazela oso ongi. 2020rako BEG gasen isurketen %20ko murrizketa aurreikusten zen. 2019ko datuak baditugu jada eskuetan, laster publiko egingen dira, eta ez dira espero bezalakoak. 2030erako %45eko murrizketa beharko genuke 2005eko kopuruekin alderatuta, eta oso urruti gaude.

Hobekien egiten ari garena zer da?

Eraikuntza alorra da etxeko lanak hobekien egiten ari dena isurketak murrizte aldera. Nafarroako etxeen birgaitze plangintza aitzindaria da estatu mailan. Argi dago eraikin berrietan bestelako materialak erabili behar ditugula efizienteagoak izateko eta haien karbono aztarna gutxitzeko. Azken hamar-hogei urteotan Nafarroan eraikin oso handiak egin dira energia kontsumoa aintzat hartu gabe: Liburutegi Nagusia, Musikaren Hiria, Nafarroako Parlamentuaren egoitza, Lurralde Auzitegia... Orain ezin dira horiek bota beste batzuk egiteko, baina egiteko daudenenetan seriotasun handiz jokatzeko ari dira. Legeak gero eta zorrotzagoak dira, baina arazoa da ez gairela garaiz iritsiko. Horren arrazoiak da badirela beste sektore batzuk aldatzeko zailagoak direnak, industria eta garraioa, esate baterako, gainera izugarri azkar handitzen ari dira. Merkeago da gaur egun kanpotik gauzak ekartzea bertan ekoiztea baino, eta horrek erabat menpeko bihurtzen gaitu.

Komunikabideetan zabaltzen den ideia da kanpora saltzea oso ona dela

ekonomiarako, baina printzipio horiek ezbaian jarri beharko ditugu eta kontsumo lokalagoa sustatu.

Askok hitz egiten da norberak aldaketa klimatikoaren aurrean egin dezakeenaz, baina erantzukizunik handiena gehien dutenena izan behar da. Energia eta eskulan merkea erabilita milioi askoko etekinak ateratzen dituztenekin egin behar dituzte erabateko aldaketak.

Jende askok ez daki argi zein larria den egoera. Komunikazio falta dago?

Bai, baina gauza positiboetan egin behar da azpimarra, horiek etorkizuna nondik joanen den ideia ematen dizutelako. Frantzia eta Erresuma Batuan, adibidez, legeak sortu dituzte herritarren batzarrek klima aldaketaren ondorioen aurka aritzeko. Zozketa bidez aukeratu dituzte kide horiek, ordaindu diete eta aholkularitza eman diete zer neurri hartu behar diren erabaki ahal izateko. Eta neurri oso interesgarriak atera dituzte. Frantzia, esate baterako, gertu dauden hirien arteko hegaldiak debekatu dituzte. Orain elkarte hori batzar bezala eratu da, ahaldundu da, eta manifestazioak ari da antolatzen. Oso positiboa izan da, administrazioak eta herritarrak hurbildu direlako.

Erresuma Batuan onartu zuten, adibidez, informazioa zabaltu behar zela jendeak errealtatea ezagutu zein gero mobilizatu ahal izateko. Honekin batera lur orotariko autoak hirietan debekatzea edo zergak igotzea bezalako erabakiak hartu zituzten. Honek erakusten du nola sistema barruan gauza asko egin daitezkeen kontsumoa gutxitzeko eta fiskalitate berde berri bat ezartzeko, administrazio publikoak berezko dituen eskumenak baliatuta. ●


INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIARATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Mendebaldearen azken lubakia

Orain bederatzi urte hasi ginen AR-GIAN azaltzen AEBen nazioarteko hegemonia gainbeheran zegoela. Garai hartan gerturatze hau ez zen ohikoa Mendebaldeko hedabideetan, egun normala bilakatu da. Kostata, baina azkenean gure jendartea onartzen hasia dago ardatz atlantiarrak utzi egingo diola munduaren zilborra izateari. Datorrena ikusten hasteak, baina, ez du esanahi mundua begiratzeko betaurreko inperialistak albo batera uztea.

Gaur egun atlantismoak inoiz izan duen hegemonia kultural handiena du Euskal Herrian. Jakin badakigu gure bizitza estiloak inoiz baino *amerikartuagoak* daudela, baina gutxiago erreparatzen diogu gure pentsaera eta mundu ikuskerari. Oraindik kluxe sinboliko batzuk funtzionatu dezakete: adibidez, NATO-ren kontrako jarrera ez da bazterrekoa, beste Mendebaldeko zenbait herrialdeetan bezala; nahiz eta nekez irabaziko lukkeen NATO n sartzearen kontrako jarre-rak 1986ko erreferendumean egin zuen gehiengo zabalarekin. Halere, kontrako botoa emango luketen askoren hautua sinbolikoa baino ez litzateke izango. Izan ere, ustez NATO zaleak ez diren euskal herritar askoren nazioarteko politikako ikuskera eta herrialde eta lider desberdinekiko iritziak aliantza atlantiarrak di-tuen ia berberak dira.

Aro garaikidean nazioarteko hegemo-nia lortzeko lehen urratsa arlo ekonomi-koan nagusitzea da, eta azkena hegemo-

Nazioarteko akademia
Mendebaldeak
kontrolatzen du
aspalditik, baina
nagusigo hori egun
inoiz baino indartsuagoa
dela esan genezake Giza
eta Gizarte Zientzietan

nia kulturala erdiestea. Azken honetan nagusitasuna lortzeko denbora gehiago behar izaten da beste dimentsio batzue-tan baino. Era berean, behin hegemonia kulturala lortuta, honen higadura eta ga-lera mantsoa izaten da; hain astiro doa batzuetan gainbehera ekonomikoa, mili-tarra eta politikoa hasita dagoenean lor-tzen dela hegemonia kulturalaren gaina. Horregatik, Mendebaldeko hegemonia-ren azken lubakia hegemonia kulturala da eta, batez ere, kontakizunaren kontro-la ikus-entzunezko produktuen, hedabi-deen eta akademiaren bitartez.

Etxeko politikan hedabideek zirimir-i baten antzera eragiten badute gure iri-tzietan, nazioartekoan euri jasa baten modura egiten dute, besteak beste urru-neko ezjakintasunagatik filtro kritikoa ez dugulako berdin aktibatzen. Egia da orain beste bertsio bat interneten bila



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

genezakeela, baina hori ere Mendebal-deak kontrolatzen du. Internetaren es-pazioa enpresa pribatuek Mendebalde-ko estatuen lankidetzarekin kudeatzen dute, erabakiz nork hitz egin dezakeen, zer esan daitekeen eta zein bisualizazio gradu izan dezakeen.

Mendebaldeak duen kontakizunaren kontrolean gizarte zibileko erakundeek eta unibertsitateek paper garrantzitsua dute ere bai. Akademia kontrol hori han-ditzeko tresna inportantea da, izan ere, hor zehazten baita zer den onargarria eta zer ez, garbi utziz nork egin dezakeen karrera eta nork ez. Intelektual batek onargarriak ez direnak idazten eta esa-ten baditu, baztertua geratuko da; berriz, bere lanak mendebaldar kontakizuna in-dartzeko balio badu, ñabardura aurrera-koi, kontserbadore edo "antisistemikoa" izanik bada ere, saritua izango da.

Nazioarteko akademia Mendebaldeak kontrolatzen du aspalditik, baina nugu-sigo hori egun inoiz baino indartsuagoa dela esan genezake Giza eta Gizarte Zien-tzietan. Karl Marx parafraseatuz azaldu genezake, klasea zegoen lekuan herrial-dea jarriz, herrialde dominatzaile batek zenbat eta gaitasun handiagoa izan he-rrialde menderatuko pertsonarik one-nak xurgatzeko, orduan eta sendoagoa eta arriskutsuagoa dela haren domeinua. Hain zuzen ere, hau da unibertsitateek borroka politikoa betetzen duten pa-pera klase eta herrialde menderatueta-ko ikerlarien xurgaketarekin. ●

Erreputazioa



UXUE APAOLAZA

Espero nuen Tubacexeko langileen garaipena Arantza Tapiaren gustukoa ez izatea, noski. Baina ohorea, prestigioa edo erreputazioa moduko hitzak entzuten ditudanean, begia daradara hasten zait. Eta greba egin duten langileek hori kaltetu omen digute, erreputazioa. Ze histeriko, ze esajeratu, ze burugogor, ze erridikulu ibili diren langileak. Emakumeak ere, oro har, oso maiz ibiltzen gara horrela. Erreputazio ona oso estua da batzuentzat; adibidez, pandemia betean, senideak ikusi ez, baina lanera autobus bete-beteetan joatera behartzen zaitu, autobusen maiztasuna murriztu eta are gehiago betetzen direnetan ere, isilik eta musukoaz.

Erreputazio txarrekoak izango dira, beraz, Guggenheimeko garbitzaileak ere, trap eta guzti, ze erridikulu. Eta zahar etxeetako langileak. Zaintzen dituzten pertsonak ere lekuz kanpo daude jada, argi eta garbi esan diete hori pertsona neurritsuek pandemia honetan bertan. Ze lotsagarri egin duten oihu pentsio duinen alde, ze erridikulu 2016ko *yayoflauta* haiek. Ospe oso txarreko dabilta gazteak ere, aldarrikapenez betetako tabernetan edo diskoteketan mozkortu ordez, kalean egiteagatik. Aburtok, zentzudun, errieta egin die behin eta berriro. “Erruririk gabe” eta “*mano dura*”-ren moduko hitzak erabili ditu, eta ea atzean polizia bana behar ote duten ere galdetu die. Polizia oinarritzkoa da erreputazioari eusteko. Albistegietan lehen berria izan dira, begira ero horiek, denok hilko gaituzte. Gazteek esan nahi dut. Erotuta, oso itxura txarra emanez ibiltzen dira zenbait ama, Juana Rivas sonatuena, baina badira gertuagokoak ere, seme-alabak aiten tratatu txarretatik libratzeko: Rivasek erreputa-

zio gabe eta kartzelan amaitu du. Paisaia itxuratxartzen dute gure osasun sistematikoko langileek ere, greba egiten dutenean, eta jende ohoretsua orduantxe baino ez da kezkatzen herritarrek lehen mailako arreta bermatua izan dezagun: zerbitzu minimoak %100ean jartzen dituzte, noski. Eta kendu dizkieten autobusen zain egoteaz aspertzen diren herritarrek, histeriko jartzen dira. Izen oso txarra hartu dute okupa imajinarioek ere: agian bidea erakusten ari zaizkigu.

Gehienetan, zoritxarrez, oso izen oneko ibiltzen gara, bide zentzudunetatik ateratzeko nahikoa ausardiarik gabe. Neurritz jokatzeko dugu, gauzak gehiegi harrotu gabe, prekarietateak erakusten dizkigun amildegien beldur. Dena dago ondo diseinatuta gure erreputazioa behar bezalakoa izan dadin, gaztetxotatik irakasten zaigu hori. Zabaltzen zaizkigun mundu berrietan ere kezka

iturri bilakatzen da erreputazioa, mundu digitala adibide. Eta *online* erreputazioaren helburua ere, kontratatua izatea da. Kontuz beraz zer sareratzen duzun, are gehiago neska bazara, neska baten erreputazio txarra beti baita okerragoa mutil batena baino. Erreputazio ona da, beraz, sisteman lekutxoia izateko modua: ezkontzeko lehen, kontratatua izatekoa orain.

Bakoitzak neurtuko du erreputazio puskak bidean uzteko zer indar duen, nik gutxi gehienetan, horregatik zait hain erakargarria, iruditzen zait hain epikoa erreputazio txarraren bidea. Nire eskerrik beroenak, berriz, ausardia hori biltzen duenari, edo nahigabe bide ertzean geratzen denari, erridikulu eta erreputazio gabe. Zigortuta. Askatasuna garestia izan da beti batzuentzat, baina ez lotsagarria: Tapiak erreputazio txarra esaten diona, duintasuna da guretzat. ●



PAULA ESTÉVEZ

Negazionismotik 'negozionismo'-ra



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOPOL ETA EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Negazionismoa enpirikoki egiazta daitekeen errealitate bat onartzea-ri uko egitea da. Ingurumenaren kasuan, energiaren mugak, petrolioaren gailurra (*peak-oil*) edo klima-aldaketa antropogenikoa ukatzea. Korrante ideologiko indartsu bat dago zeinean korporazio ekonomikoak eta lider politiko ugari sartu daitezkeen. Ukazioaren arrazoi nagusitzat, sistema ekonomikoak ezin duela atzerapenik edo deshaszkunderik izan, dioskute. Bestela kaosa, denok txar-rago biziko baikara. Aspaldiko partez, dena den, translazio mugimendu bat ari gara ikusten eta negazionismo ekologikoan egon diren eragile askok ekokapitalismorako bidea hartu omen dute. Nire ustez, biraketa honen arrazoien artean, bi dira nagusi. Batetik, ingurumenaren, edo hobe esanda, krisi sozioekologikoaren zentralitatea agenda politiko mediatikoan eta, bestetik, zientziak ekologismoari emandako oniritzia.

Zientzia. Uda honetan IPCCtik (*International Panel for Climate Change*, ingelesez) filtratutako txostenak ez du zalantzarik jartzen: deshaszkundea ezinbestekoa da larrialdi klimatikoa gainditzeko. Diskurtso zientifikorekin, ekologismoaren eta gizarte zibilaren mobilizazio eta presioaren kateatzea inoiz baino argiagoa da, baina ez du bermatzen beharrezko politikak praktikan jarriko direnik. Bizi

garen sistema ekonomikoak, kapitalismoak, atsedetik gabe hazi behar baitu zutik iraun ahal izateko. Eta kapitalismo berdearen edo ekokapitalismoaren bideraezintasuna salatzea ez dago ondo ikusia gure erakunde politikoetan eta unibertsitateetan. Adrián Almazán irakaslearena, adibide argia dugu: Deustuko unibertsitateetik kaleratu berri dute "paresia" antikapitalista mantentzearen.

Negozionismoa. Juan Borderari eta Antonio Turieli irakurri genien neologismo guztiz egoki hau. Energia berriztagarrien plan erraldoiak edo hidrogenoak sortu dituen inbertsiorako nitxo dirudunak adibide onak dira ikusteko energia fosilen negozioak ez direla bateraezinak energia berriztagarrien garapenarekin. Beste gauza bat da elektrizitatearen prezioa jaistea, edo merkatu energetikoa planifikatzea edota publikatzea. Duela gutxi Aitor Esteban (EAJ) ikusi dugu Madrilgo Kongresuan Iberdrolaren defentsan. Alderdi politiko eta korporazio energetikoen arteko kolaborazioa edo ate birakariaren fenomenoak ekiditen ez diren bitartean, negoizionismoa ugaltu egingo da. Eta ekosistemek kolapsatu-ko dute, zientzia behin eta berriz esaten ari den moduan. Greta Thunderrek Glasgoven horixe bera baieztatu du. Eta oraindik ere, batzuk diote ez dela antikapitalista. Bai zera! ●

Eguzkitan



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Urriko domeka eguerdi ederra da, freskoa baina eguzkitsua. Ogitara eta egunkaria hartzera irten naiz, igande bazkal aurreko buelta egitera. Hain eguraldi ederra dago, ezen parkeko banku batean jesartzeko gogoia piztu zaidan berripapera irakurtzera. Udazkenean gaude, eta badakigu egun argi hauek aprobetxatu beharrekoak direla.

Halaxe egin dut: bankuan eseri, eta goxo-goxo egunkaria leitu. Bat-batean konturatu naiz igande eguerdi horretan jarleku publiko batean nagoela; parkean egonean, zaintza lanik egiteko ez badut ere; ezer kontsumitu gabe; periodikoa paperean irakurtzen. Irakurtzen. Eus-

karaz. Paperezko egunkaria euskaraz irakurtzen.

Egoeraz kontziente izan naizenean, *outsiderra* sentitu naiz lehen momentuan. Gerora, *zaharrunoa*, beste sasoi batekoa.

Ez dut performance bat egin nahi izan, baina hori dirudi. Inguruan kazeta gutxi ikusten dira, eta ikusten direnak kirol prentsa eta *elperiodico* dira, denak gaztelaniaz.

Kontsumitu ez, eta espazio publikoa okupatu. Definitiboki, periferia naiz eta *demodé* nago.

Haize kontra nabil, baina hain da goxoa (eta erraza) eguzkitan hori egitea! ●

Bidea da borroka bakarra



IMANOL ALVAREZ VARELA
JAKINMIN ELKARTEKO KIDEA

Lege berria dator hezkuntzan, bertsolari txapelketa nagusia edo joko olimpikoak lau urtetik behin dira eta hezkuntza legearen aldaketa, egutegi kristauan jaieguna bezala, ez da erregularra baina antzera. Lege honek curriculum bat dakar besapean, irakasleonek lana gidatzen duen Biblia, oposizioen jaunartzetik pasatu ezean, gurea ere inork irakurtzen ez duena. Hau honela, eta oraingoan ere, badirudi filosofiaren presentzia agindutakoa baino eskasagoa izango dela, kantitatean eta kalitatean. Biak aztertzen saiatuko naiz, prozedurari lotua lehena, formari bigarrena. Lehen begirada batean ikusten dena eta hausnarketa mikroskopikoa-ren laguntza eskatzen duena.

Kantitateari dagokionez curriculum kooperatibo bat proposatu da, behingoz hezkuntza komunitatea kontuan hartzen duena. Zentroen eta, batez ere, erkidegoen eskumenen handitze nabarmena dakarrena. Baina testuingurura egokitzeko asmoa printzipioz aurrera-pausu bat badirudi ere, segun eta testuingurua. Askatasuna maitale arriskutsuegia dela kantatzen zuen Garrik. Motibazioa pedagogikoa izanik ere, komunitate askotan altuegia bai da ordaindu daitekeen prezioa. Hau honela, pentsamendu kritiko eta autonomia

bermatuko zuela promestu zuen gobernuak, hori da hain zuzen, egingo ez duena. Orain geratzen zaiguna, ozenki eta aho batez Jaurlearitzari eskatzea gizarte batek ondo funtzionatzeko hain beharrezkoa den hausnarketaren lanketa defendatzea.

Kalitateari heltzeko Alexandriako Hypatiak esandakoa: “Defenda eza zu zure pentsatzeko eskubidea, gaizki pentsatzea ez pentsatzea baino hobetagoa da eta”. Zer da ordea ondo edo gaizki pentsatzea? Estilo ezberdinetako etxeak daude, bakoitzak topatuko du berea. Baina egitura sendorik gabe ez naiz ni sartzen inoren teilatupean. Norberak bere etxea eraiki dezan oinarritzko arkitektura nozioak jasotzea da filosofiaren helburua hezkuntzan, ez prefabrikatutako etxeak ematea. Hertzainak taldearekin bueltan, prefabrikatutako ametsen gaitz endemikoa beren funts falta baita. Dogmez ari naiz azken finean, zalantzan jartzea debekatuta dagoen oinarritzko ideiez. Edozein ideologiak baino beldur gehiago eman beharko ligukeen mamuaz, gure buruari kontrakoa sinetsarazten diogunean ere, haietan hezteko ikaragarritzko joera dugu eta. “Aztertu” ez da “onartu”, “ulertu” ez da “hausnartu”... Eta ez da kontu gramatikala. Berdin dit gaia generoa,

kulturartekotasuna, identitatea edo sistema ekonomikorik onena den. Disidentzia eta elkarriketa bermatzen ez duen gizarte batek izan ahal den gaixotasunik larriena du: arrazoi osoaren ustea.

Baina noraino doa gauzak zalantzan jartzea? Non dago onartu daitezkeen ideia edo ekintzen muga? Handinahikerietan jausi gabe, zer da ondo pentsatzea? Errespetuaren mugak zeharkatzen ez duen elkarriketa argudiatua da gakoa, errespetuaren muga hari fina dela jakinik baina funanbulismo ariketa beharrezkoa dela onarturik. Pentsamendu arretatsua deitu zuen Lipman filosofoak: esandakoak besteengan izango duen inpaktua kontutan hartzea alegia, baina pentsatzen duguna esateari utzi gabe. Arrazoiketa eta koherentzia bezalako baloreen presentzia ere beharrezkoa dira, elkar ulertzeko aukera eta jarreraren zintzotasuna bermatzen duten heinean. Balore instrumentalak deitzen ditugu guk, hortik aurrera eta besteen ideiekin elkar-hizketan, balore propio zein amankomunak eraikitzea ahalbideetako digutenak. Ez da hainbeste baina ez da gutxi, beraz, proposatzen duguna. Ez gaudelako filosofia aldarrikatzen soilik, filosofia ulertzeko modu bat da gurea. Lagun on bati irakurria: bidea da borroka bakarra. ●



**benetan
garrantzitsuak
diren gauzak**

Aktibatu Lortu Zaindu

2021eko azaroak 24-25
Euskalduna Jauregia
15. KONGRESUA



Bazterkeria kudeatzen, patrika h(J)elburu



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
ZINEGOTZIA

Donostiako Udaleko kudeatzaileek agintaldi hasieratik egin dituzten hutsen zerrenda irakurri diot zinegotziari. Horiek ez errepikatzen eskatu diot, baita Udala euskalduntzeko lanean laguntzeko eskaintza egin ere. Ez dira gutxi izan atzera urratsak, eza-gunak dituzue zuzendari postuetarako euskara gaitasuna ez eskatzeko baliatu duten trikimailua, edota nola kontratatu dituzten euskara gaitasunik gabeko 60 udaltzain; salatua dugu hamar urte itxaron beharko dugula udal autobusen geltokietako publizitatean euskara berdintasunez erabiltzeko, edota euskarazko hedabideetan baino 20 aldiz publizitate instituzional gehiago kontratatatu dutela *Diario Vasco*-n. Era berean, ohartarazi diot udalean erabiltzen dugun dokumentazio ugari gaztelania hutsez sortzen dela, eta bidali ere, euskaratu gabe bidali izan digutela. Eskatu ere eskatu diot euskaraz egiteko, araudiarekin bat etorrita, euskarazko gaitasun autonomoa duten udal langileen tzako edozein ikastaro; edota ingeles hutsezko hizkuntza paisaia baztertzeko “euskararen hiriko” udal kiroldegietan.

Bere-berea du PNVk oztopoak eta trabak jartzea euskararen araudia zabaltzeko edo arau berriren bat sortzeko eskatzen zaion aldiro

Illo horretatik, azalpenak eskatu dizkiot Udalak herritarrentzako antolatutako hainbat jardunaldi eta ekitaldi nagusiki gaztelaniz edo gaztelania hutsez izan direlako.

Euskararen erabilera normalizatze-ko ardura duen zinegotziak onartu egin ditu akatsak, baina beraien kudeake-

taren alderdi positiboari erreparatzeko eskatu dit. Nola ez, *be positive my friend*, agonista ni. Tira, erantzunarekin aurreikuspen baikorregirik egin ez nezana edo, egun on bati euskaraz erantzuteko gai ez den Udal Gobernuako beste kide batek “papistegia” naizela esan dit, araudia betetzeko eskatu diodalarik.

Eta hortxe dago koska. Bere-berea du PNVk oztopoak eta trabak jartzea euskararen araudia zabaltzeko edo arau berriren bat sortzeko eskatzen zaion aldiro. Neoliberalen ikasle aurreratuaren modura, ez du erregulaziorik nahi, eta saiatzeko badauden arauak ez ezartzen, bere negozioetarako oztopo izan daitekeelako; horren adibide da ez egin nahi izatea Añorgako etxebizitzaren egitasmoak euskararen erabileran izango duen begi-bistako eraginaren azterketa. Trebea ere bada araudiari salbuespenak jartzen eta horiek bere mesedetan baliatzen. Eta bazterkeriara kondenatuta gaituen kudeaketa eskuindar hori guztia euskaraz bizi nahi dugunoi irentsarazteko, zer hobe xantai emozional eta ekonomiko Corleanetar bat baino. Patrika h(J)elburu! ●



HEZKUNTZAN, PUBLIKOA ARDATZ!

Denona eta
denontzat!



160 URTE MIGEL JOAKIN ELEIZEGI HIL ZELA

Altzoko Handiaren itzulera

Azaroaren 20an dira 160 Altzoko Handiak agur esan ziola munduari, bere hezur handi eta guzti. Europako oholtza dirdiratsuetan itzulia egin zuen gizonkoteak sortetxean amaitu zuen umil, Altzo Azpiko Ipintza Haundi baserrian. Gero, bere oroimena ahozko istorio eta idatzizko aipamen laburretan galdu zen. Baina azken urteetan altzotarraren irudia lau haizetara zabaldu da berriz, zeluloidearen magiak, ikerketa berriek eta herritarren ekimenak hauspotuta. Migel Joakin Eleizegi diosala eginez itzuli zaigu, iaz aurkitu zituzten bere hezur handi eta guzti.

 URKO APAOLAZA AVILA

Elizaren ondoko harmailak igota dagoen hilerrian lurperatu ninduten ni”, halaxe leitu dezake Altzora hurbildutako turistak, herrian barrena paratutako paneletako batean. 1861eko azaroaren 20an hil zen Migel Joakin Eleizegi Ateaga, Altzoko Handia, Euskal Herrian –eta seguruenik Europako beste lur askotan– inoiz ikusi den pertsonarik handiena. Akromegaliaren ondorioz 2,42 cm luze neurtu zuen, Altzo Azpiko San Salvador eliz atarian grabaturiko azken marrak adierazten duenez, eta bere hezurrek 17 arroako (203 kilo) pisua jasan behar izan zuten, handien zen unean.

Gure Haundie –hala deitzen diote Altzon– erraldoitasunak sorturiko gaitzek jota hil zen, seguruenik haren bihotz koskorrak edo birikek amore eman zutelako; baina aurretik testamentua egin eta 500 meza utzi zituen ordainduta. Heriotzaren hurrengo egunean, hiletak egin eta bere

gorputza Ipintza Haundi baserritik kanposantuko senideen hilobira eraman zuten.

“Orain ez nago. Galdu nituen handikeriak, galdu nituen mamiak eta galdu nituen eskuak eta nire puska denak”. Urte askoan pentsatu izan da Altzoko Handiaren hezurak lapurtu egin zituztela, salduak izan zirela, atzerriko museoren batean edukiko zutela gizajoa ezkutaturik. Haren memoria profanatu duen kondaira bat baino ez zen. 2020ko abuztuaren 14an San Salvadorreko hezurtegia aurkitu zuten Aranzadiko arkeologoek Migel Joakin, edo bere puskak.

Altzoko Handiaren inguruan azken urteetan sortu den ikusmina gehiago harrotu du aurkikuntza horrek, bere bizimodu tragikoarekin bat egiten zuen amaiera misterioitsua, nolabait argitu delako. Bizirik zela, mundu osoan sona izan zuen





Altzoko herrian Migel Joakin Eleizegi Altzoko Handiaren bizitza kontatzeko eraiki berri duten interpretazio zentroan dagoen tamaina errealeko maketa.

ALTZOKO UDALA

Eleizegi euskal *jiganteak*, baina hezurrekin batera desagertu zen interesa, modernitateak behar zituelako beste erronka batzuk ontzeko, beste munstro batzuk harritzeko. Mende eta erdian apenas aipamen batzuk liburu zaharretan, edo harritzko erlieberen bat haurrek euren oin txikiak handiaren abarketan galtzeko, sortetxe ondoan dagoena bezalakoa, Juanito Lopek 1968an egina. Baina orain, berriz sortu da grina.

OHOLTZETATIK, PLAZARA ETA PANTAILA HANDIRA

2010eko hamarkadarekin heldu zitzaion herritarren artera itzultzeko unea Ipintzakoari. Urte hartan Topic Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroak ekoiztutako *Altzoko Handia*, txikien opera estreinatu zuten Altzoko Udaletxean. David Azurza altzotar musikagileak zuzendua eta Koldo Izagirre idazlearekin batera egina, Euskal Herrian ez ezik, Mexiko eta beste hainbat tokitan ere eskaini dute obra geroztik. “Nolakoa da mundua?” galdetzen diote haurrentzako operan itsasoz bestalde ibilitako auzotar kankailuari, “ederra da bere itsusian”.

Gero, Altzoko Handiaren bizitza oinarri hartuta, filma egiteko asmoari ekin zioten Jon Garañok eta Aitor Arregik, eta 2017an pantaila-

ratutako *Handia* fikziozko luzematraiak beste dimentsio bat eman dio pertsonaiari, ez bakarrik kanpoan, baita etxean ere. Altzon, adibidez, pelikulak akuilatuta herrira iritsitako turistentzako harrera gune bat eta interpretazio zentro bat egin dute. Eta horren aurretik, ibilbide bat ere atondu dute hainbat panelen bidez, pertsonaia gehientsuen ikertu duen Izagirreren testuekin eta Juanba Berasategiren artelanarekin: “Eserita norainokoa, elizako atarian daukazu seinalea”, dio paneletako batean. Ibilbideak *Imazen pagoraino* darama ibiltaria; Manuel Antonio Imaz bertsolari ezagunak landatu eta mimoz zaindutako pago motzak 200 urte, 22 metro garai eta 30 metroko adaburua du: “Hi luzea haiz, baina hau luzea eta zabala izango duki!”, esan omen zion Migel Joakini.

Imazek ez zion bertsorik jarri Altzoko Handiari. Egia esan, ez bertsoetan, ez kantuetan, ez literaturan, ezta folklorean ere ageri zaigu kasik ezer berari buruz. Oraingo loraldian berriz, sorkuntzarako inspirazio iturri bilakatu zaigu, eta egin dira herri-antzerkiak, bertso-kontakizunak, ipuin-ilustratuak, bisita gidatuak... Liburu historiko bat ere publikatu du Gipuzkoako Aldundiak 2019an: *Altzoko Handia. Euskaldun mitiko bat (nahiz guztiz erreala) XIX. mendeko European*. Luis Ángel Sánchez Gómez Madrilgo Complutense Unibertsitateko Historia doktoreak egina, Altzoko Handiaz zabaldu ziren hainbat topiko desmuntatu nahi izan ditu ikerlanean, eta datu berriak eman. Izan ere, gezurra badirudi ere, 160 urte geroago oraindik ezezaguna zitzaigun Migel Joakin Eleizegiren historia.

ALTZOTIK TOLOSARA, TOLOSATIK MUNDURA

1818ko uztailaren 10ean jaioa, Altzoko baserritar familia zabal bateko hamar anai-arrebatan seigarrena zen Migel Joakin. Hamar urte baino ez zituela, ama Maria Antonia Ateaga hil egin zen, hamargarrena erditu eta bost egunera. Erlijioak menperatutako herri txiki batean eman zituen nerabezaroko urte haiek gure protagonistak, 1813an

Wellington eta enparauek eragindako triskantzen oihartzuna oraindik iristen zela hirietatik.

Dirudienez 18-20 urte egin arte Migel Joakinen tamainak ez zuen arretarik sortu, baina akromegalia ekarri zion gaixotasunen bat izan zuen, antza, eta hortik aurrera etenik gabe hasi zen hazten eta hazten. Herrian natural ikusten zuten auzotarraren handitasuna, titikumea zenetik ezagutzen baitzuten; baina saskiak edo tipulak saltzera Tolosako feriara jaisten zenean, kalean harridura pizten zuen bere garaieragatik. Gorputza, gainera, ongi "proportzionatua" zuen mutil bizargabe hark, gigantismoa jasaten zuten beste pertsona askok ez bezala, eta horrek harridura handiagoa sorrazten zuen. Sánchez Gómezek dioenez, prentsan lehen aipamena Madrilgo *El Corresponsal* egunkariak egin zion 1843an, 25 urte zituela, eta ordu-rako 2,09 metro neurtzen omen zuen.

Garai hartan bi metrotik gorako gizasemea kalean aurkitzea ez zen batere normala, urteko egun gehienetan arto-irinez eta babarrunaz elikatutako jendartean. "Hiruk bezala jan eta lauk bezala edan, egiten omen nuen nik. Hala izango zen noski", mintzo zaigu Migel Joakin, Ipintza Haundi ondoko paneletik.

Urte hartan kontratua sinatu zuen Lekunberriko Jose Antonio Arzadunek eta Tolosako nahiz Donostiako hainbat dirudunek osaturiko elkartearekin, bere gorputza Euskal Herrian eta hemendik kanpora erakusteko. Jende harrigarrien exhibizionismoa bogan zegoen negozioa zen XIX. mendeko espektakuluaren munduan; Phileas Taylor Barnum enpresariak, esaterako, arrakasta itzela izan zuen New Yorken *showak* egiteko museoarekin. Baldintzen artean, besteak beste Eleizegik eskatzen zuen igandetan mezetara joan ahal izatea, erretzeko tabakoa ordaintzea eta itsasora inoiz ez egin behar izatea.

Hilabete gutxiren buruan, baina, kontratua desegin eta bere kabuz hasi zen erakustaldiarekin, aitak eta anaia nagusiak, Juan Martinek lagunduta. Hala, Madrilén ikusiko dugu lehenik, alokatutako koartoetan erreal baten truke bere burua agertaraziz –turkiar turbantea jantzita duela egingo diote lehen marrazkia aldizkari madrildar batentzat–, baita geroago Lisboa, Londres eta Pariseko hotel eta kafe sonatuetan ere; sekula ez zirkoan.



Migel Joakin Eleizegi irudikatuz ezagutzen den lehen ilustrazioa, Madrilgo *El Laberinto* hamaboskarian argitaratua.

Hezurrekin batera
desagertu zen interesa,
modernitateak behar
zituelako beste erronka
batzuk ontzeko,
beste munstro
batzuk harritzeko

Argien hirian adibidez, Café Mulhousen sabaitik zintzilik zeuden gas lanparekin pizten zuen zigarroa. Batzuetan jeneralez jantziko da, bestetan erpuru-txoan ondoan jarriko dute antzeuten, *Kolibri* printze-printzesa ttipiak eskutian dituela ere bai, edo ikusleak bere hankapetatik pasako ditu, berdin *Le géant espagnol Eleiceigui*, berdin *Basque giant Mr. Eleicegui* deiturapean. Bidaia horietan errege-erreginen aurrera ere eramango dute Altzo Azpiko mutila, hango elizako plaka zaharrak gogoratzen duen gisan: "Espainia ta Portugaleko erreginari eta Ingalterra eta Frantzia'ko erregeari ikusi erazia".

Hezurak argitara

Migel Joakin Eleizegiren hezurren aurkikuntza ez zen izan ikerketa historiko edo txosten zientifiko baten emaitza, kafe baten bueltan izandako elkarrizketetatik Karlos Almorzak ateratako ondorioa baizik. Hala kontatu du Aranzadiko arkeologoak *Ataria*-n. Altzoko Handiaren hezurak ostu egin zituztela zioen zurrumurru aski zabalduaz udaleko langileei galdetuta, "inork, inon eta inoiz ez zuela datu txikiena hori baieztatzeko".

Eleizegiri buruz idatzi duten historialariek ere lapurretaren edo salmentaren teoria arbuatu dute. Areago, Luis Ángel Sánchezek Gipuzkoako Aldundiarentzat idatzitako liburuan garbi esaten du: "Nire iritziz hondakinak lurpetik atera zituzten leinu etxearekin loturiko zendu berriei lekua uztearren (...)".

Almorza Altzo Azpiko hilerria gerturatu zenean, jabetu zen "erdi abandonatua" zegoela. Eleizegitarren hilobia eta hezurtegia lokalizatu zituen, eta horrela ekin zien 2020ko abuztuan indusketei. Hilobian bilatu ostean, hezurtegian aurkitu zuten Altzoko Handiaren hezurduraren zati handi bat, sorpresa handiz. "Hornoetan artrosi seinale mordo bat aurkitu dugu –azaldu zuen Lourdes Errasti Aranzadiko kideak– horrek esan nahi du gaitza oso aurreratua zuela eta min izugarria izango zuela bizitzan, horregatik kexatzen zen, horregatik bueltatu nahi zuen etxera".

DNA probak egiteko laginak atera eta berriz hilobiratu zuten beti egon den tokian. Orduan, nondik nora datorkigu lapurretaren kontu hori? Almorzaren us-tez ziurrenik Altzoko Handiaren aita, Migel Antonio Eleizegi, izan zen hamaika urte geroago bera hiltzean, semearen hezurak kaxatik atera eta hezurtegian uzteko agindu zuena, "gorpua lapurrengatik babesteko lekualdatu zuten, Altzo Azpiko hilerrian gera zedin, berak nahi izan zuen bezala".



Goian, ezkerrera, Aranzadiko kideak lanean. Eskuinean, Pako Etxeberria auzitegi-medikua, Migel Joakin Eleizegirena izan daitekeen besahezurra konparatzen, Jon Garaño eta Aitor Arregi *Handia* filmaren zuzendariak ondoan dituela. Beheko irudian, Altzoko Handiaren hezurduratik aurkituriko zatiak Altzo Azpiko hilerrian, bere irudia atzean dela.



Azkeneko bira handia Frantzian barrera egingo dute Migel Joakinek eta anaia Juan Martinek. 1855ean Flan-driako mugaraino iritsiko dira, Saint Omer hirira. Etxetik mila kilometrora daude. Gero Ipintza Haundira itzuliko dira, dirutxo bat eginda, eta hor eman-go ditu Altzoko Handiak bere azken ur-teak, ikuskizunen mundutik aldentuta, prentsak jadanik *géant* euskaldunaren berririk ematen ez duela. Ordurako egi-na dauka testamentua, ordurako bere hezur handiek hitz egiten diote den-boraren ihesaz. Hil ondoren historiara pasako da gure handia, baina zer dio historiak berari buruz?

GIZON JATUN, ELIZKOI, UMIL, POBRE...

“Alzo-azpiko herriak ere badu seme bat hemen ezarriko ditudan alde-tik ez bada ere txit oroigarria berez dituen dohainengatik; seme hau da Joakin de Eleizegi”. Hala idatzi zuen Juan Ignazio Iztueta historialari zaldi-biarrak Altzoko Handiaz *Gipuzkoako probintziaren kondaira*-n, 1847an argitaraturiko lana, altzotarra oraindik oso ezagun ez zenean. Testu hori da liburu batean Eleizegiren inguruan



Altzoko Handiaren marrazkia, Juanba Berasategi zinema-zuzendari eta irudigileak hil aurretik moldatua, Altzon zabaldukako ibilbidea ilustratzeko.

idatzitako lehen erreferentzia, euskaraz. “Ez du aurkitu bat bakarrik alderatzekorik ez ezik galtzarbeaz gora igarotzen zaionik ere; hargatik legez eta bidez ipini diote *Erraldoi Euskaldunaren* izengaina”.

Ondoren Serapio Mujikak 1896an artikulu sakonago bat idatzi zuen *Euskal-Erria* aldizkarian, ahozko testigantzetan oinarritua. Eta geroztik han-hemenka aipatuko dute ikerlariak -1970eko hamarkadan Jesus Elosegik eta Aita Gandaria-



Euskararen Etxea

Lanerako leku bila?

**Zatoz Euskararen Etxeko
Lantoki Kooperatibora!**

**Euskara helburu edo misio dutenen
coworking gunea Bilbon**

Doan!

Eskariak aurkezteko epea:
Azaroak 11 - Abenduak 13

www.euskararenetxea.eus





MAURO SARAVIA



LUIS ANGEL SANCHEZ / ALTZOKO HANDIA

Ezkerrean, Ipintza Haundi baserria, Migel Joakin Eleizegiren sortetxea eta hil zen lekua. Eskuinean, Altzoko Handiaren ibilbiderako paratutako karteletako bat, Koldo Izagirrerren testuekin, Juanito Lopek 1968an egin erliebearen ondoan.

sek lan bana kaleratuko dute esaterako-, baina Sánchez Gómezen esanetan, XIX. mendeko usteak errepikatu baino ez dituzte egingo: gizon jatun, elizkoi, umil eta pobrearen irudia gailenduko da.

Bere bizitzako azken urteetan pobre hil zela dioen opinioak, seguruenik badu zerikusirik hil baino lehenago, 1859an, Gipuzkoako Batzar Nagusietara bidalitako eskaerarekin: txakalaldiak jota, pentsio batekin laguntzeko eskatu zuen, "miseria egoeran eta lanari ekiteko ezintasunean" zegoela esanez. Ezezkoa jaso zuen. Sánchez Gómezek bere lanean hori gezurtatzen du ordea, eta dio Altzoko Handiaren egoera ekonomikoa ez zela inondik ere kaskarra. Batetik, aitik bi baserri jaso zituelako oinordetzan -XIX. mendeko Gipuzkoako familia gehienak maiztertzan bizi ziren bitartean-, bes-

etik artxiboetako dokumentuetan ikusten delako diru mordoxka irabazia zuela ikuskizunekin, senide eta ingurukoei maileguan emateraino, eta gurdi bat ere erosi ahal izan zuela bere bidaietarako, luxu bat garai haietan.

Eta zer dakigu bere izaerari buruz? Umila eta lotsatia zela errepikatu izan digute, "fenomeno guztiak bezala, gazta gordetzeko kristalezko kanpian esplotaturik" zutela, Pariseko *Musée des Familles* literatur aldizkariak esan moduan. Baina hemen ere, historialariak argi du ez zela erabilia izan: "Bizitza ibiltari horretan ez balu jarraitu nahi izan (...) seguru gaude amaiera puntua jarriko ziola. Baina ez zuen egin. Eta ez zuen egin dirua dezente irabazten zuelako, ahalegin berezirik egin gabe". Bere kabuz erabaki garrantzitsuak ere har-

tu zituela dio, hala nola hil baino egun batzuk lehenago testamentua aitaren mesederako aldatzea.

Ez dakiguna da nola sentitzen zen bere gorputz handi horren barruan, bere burua benetan "naturaren abortutzat" ote zuen, Isabel II.a Espainiako erreginari idatzi zion bezala. Zer pentsatu zuen bere eskuen molde brontzezkoak salgai ikusi zituenean Parisko Burtsako auzoko erakusleho batean? Zer otu zitzaion Londresko museo hartan erakutsi ziotenean "hezur hutsean hantxe luze, handi" James Toller erraldoi ospetsua? Gauza bera egingo ote zuten berarekin? Baina ez. Ez zuten saldu beira artean hilezkortzeko, eta agian horregatik itzuli zen sorterrira, txiki jaio zen tokira eta *normala* zen garaira, behintzat heriotza duin bat izateko. ●



Galdera baten kronika

Nola kontatu behar da euskal gatazka?

Urriaren 20ko astea bete-bete joan zen euskal gatazkaren oroimenaren bueltan. Iruñean egin zen honako saioa urriaren 23an, Laba eta Karrikiri elkarteek eta Maiatz argitaletxeak antolatuta: *Oso latza izan da. Nola kontatu, nola gogoratu euskal gatazka* solasaldia. Memoria mahai gainera ateratzen den bakoitzean, oroitzeko hamaika molde daudela ikusten da. Memoriari buruzko hausnarketan gaur egun horren ohikoak eta zabalduak ez diren gogoetak entzun ziren Labako egoitzan.

 **XABIER LETONA BITERI**

José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako gobernuburu ohiak ETArekin izandako elkarrizketa garaia goraipatzen entzun dugu. PSOEko egungo gobernuko ordezkariak “demokratek irabazi dutela” lehenetsi dute. PPTik eta Vox-etik diote ETA ez dela oraindik amaitu. Eusko Jaurlaritzak garbi zuen ez zuela nahi Aieteko Konferentzia bakearen ardatz izatea, eta ETAREN deslegitimazioa nahi zuela lehen lerroan: aitor dezala ezker abertzaleak ETAK inoiz ez duela zentzurik izan. Eta ezker independentistak, biktimei zuzenduz, erantzun egin dio: “Gurea egiten dugu mina, ez zen inoiz gertatu behar”. Denborarekin azalduko dute hobeto hitzok nola ulertu behar diren, negoziatio eta bake prozesuetako anbiguetate osoarekin luzatutakoak baitirudite.

Ez zen inoiz gertatu behar, baina gertatu zen. 60 urteko gatazka politiko eta biolentoak gogor astindu du euskal gizartea azken mende erdian eta, neurri apalagoan, jarraitzen du astintzen hainbat molde: oraindik lehen lerroko kaltetuak daude, presoak, deportatuak, auzipetuak, senideak... eta bestelako biktima askoren sufrimendua ere mahai gainean dago, ETAK zein Espainiako Estatuak eragindakoak, batzuk ezagutza maila ofizialaren bedeinkazio guztiekin, besteak erdipurdiko ezagutzarekin, eta denak korapilo askagaitzekin haien barnean. Beraz, gertatu zen eta kontatu behar da, baina nola?

ELKARRIZKETA LOPEZ ADAN-EKIN

Aretoan egin beharreko obrari ekin aurretik abiatu ziren Labako lehen solasaldi hauek Gazteluko Plazan. Lehenik Emilio Lopez Adan *Beltza*-rekin elkarrizketa publikoa egin zen. Kronika hau sinatzen duen kazetariak jarri zituen galderak, idazleak aurrean kaleratutako *Borroka armatua Euskadin. 1967-2011* (Maiatz) liburuaren edukietan oinarrituta; funtsean, ARGIAk *Larrun*-en egindako elkarrizketaren laburpena izan zen.

Lan erraldoia da Lopez Adanena, gatazkaren oso ikuspegi zehatza ematen duena. Talde armatuen historia aztertu du egileak hiru liburutan, orain arte inork ikertu ez duen moduan. Eta borroka horren aldarri ere egiten du, hori bai, oso ikuspegi kritiko eta zorrotzez, bere idazkietan ohikoa den gisan. Seguruenik, horregatik ere ez du lortu tamainako lan batek izan beharko lukeen oihartzun publikoa. Gatazkaren errailetara jo eta gaur egun ezohikoak diren gogoetak utzi zituen entzulez bete ageri zen aretoan.

MEMORIA UGARIAK

Elkarrizketaren ondoren egin zen mahai-ingurua: bi beterano eta bi gazte, lauak kezka sakonekin eta memoriaren saretan harrapatuak. *Berria*-ko kazetari diren Samara Velte (eszedentzian orain) eta Maider Galardi oroimena oinarri duten doktoretza tesietan murgilduta daude. Veltek gazteek gatazkari buruz sortzen dituzten diskurtsoak eta



Ezkerretik eskuinera: Maider Galardi, Emilio Majuelo, Xabier Letona, Samara Velte eta Emilio Lopez Adan.

haien transmisio iturriak ikertzen ditu. Galardik betaurreko moreak jantzi ditu, emakumea ardatz hartu eta euskal gatazkaren ertzetako biolentziak miatzen dihardu.

Beteranoen artean Emilio Lopez Adan eta Emilio Majuelo izan ziren. Lehena aurkeztuta dago eta bigarrena arras eza-guna da historiaren irakaskuntzan eta ikerketan Nafarroan egindako ibilbide luzeagatik; historia soziala, historia politikoa eta historiografia dira berak landutako eremu nagusietakoak. Hizlariak pozik agertu ziren Labaren lehen hitzaldi hauetan parte hartzeko aukera izateagatik. Ondoren azalduko dira lauen ideia nagusietako batzuk.

VELTE: GAZTEEI INFORMAZIOA FALTA ZAIE

Samara Velte 16 eta 22 urte arteko gazteak ari da elkarrizketatzen eta, bere ustez, dagoeneko iritsi zaizkie diskurtso sendo batzuk. Hemen berak esandakoaren laburpena, bere hitzetan:

Diskurtso horietan ebaluazioa nagusitzen da informazioaren aurretik, eta gazteek gehiago diote “hau gaizki egon da” “hau gertatu zen” baino. Biolentziaren kondanaren diskurtsoak indar han-

dia du eta hori iritsi zaie. Ze, bestela, nola ebaluatu dezakezu ezagutzen ez duzun zerbait? Bukatzen duzu harreman nahiko bitxia izaten zure komunitatearen iraganarekin, badakizu ezin duzula zerbaiti buruz hitz egin, baina ez dakizu zergatik ezin duzun.

Zein izan beharko litzateke edozein gatazkatan hurrengo belaunaldiak bere historiarekiko duen harremana? [jarraitzen du ikerlariak]. Logikak dio hurrengo belaunaldiak askatasun handiagoa eduki beharko lukeela iraganaz hitz egiteko, ez duelako hainbeste galtzeko. Ez da ni elkarrizketetan ikusten ari naizena, salbu eta Ipar Euskal Herrian, han libreago ikusten ditut iraganaz hitz egitean; pentsatzen dut izango dela hango presio diskurtsiboa ez delako Hegoaldean bezain handia. Hango gazte batek ETAre desarmearen inguruko egunaz zera esan zidan: “Dolu egunak izan ziren nire inguruan; nik tristura sumatu nuen”.

Bi ikuspegi ikusten ditut gazteengan: batzuek abiapuntua frankismoan jartzen dute eta besteek ETAre sorreran. ETAre bilakaeraren barruan bi faseen narratibak pisu handia hartu du, hau da, ETA ona eta ETA txarra bereiztea;

eta askotan, bereizketa ETAm-ren eta ETApm-ren artean kokatzen dute. Oroitzen diren figura gehienak gizonak dira, eta badago heroizazio bat, gudariaren figuraren iraute bat, eta zentzu horretan dibertsifikazio oso gutxi gatazkaren protagonistei buruz.

Bada zentsura sozialaren pertzepzioa. Batetik, adierazi izan didate gizar-teko sektore batean abertzaletasunaren iritzia nagusi dela; eta bestetik, bada pertzepzioa estrategia armatuarekin lotutako ezer ezin dela justifikatu eta horra hurbiltzen den edozein diskurtsok jasan dezakeela zentsura. Eta hortik sortzen da tabu bat. Ematen du eztabaidatzea txarra dela eta, ondorioz, askotan gure komunitate ideologiko berberetan ateratzen direla gai hauek, eta ez, adibidez, eguberrietako bazkari familiarretan. Ondorioz, batzuetan etxeko transmisioa eten egiten da, pentsatzen dugulako eztabaida horiek txarrak direla.

Galdera batzuek laguntzen digute aurrrera egiten eta beste batzuek eztabaida blokeatzen dute, eta horiek ere identifikatu behar ditugu. Bat izan daiteke biolentziaren kondanarena, eta bestea, irabazle eta galtzaileena.

MAJUELO: HISTORIA, MORALA ETA ZERGATIAK

“Elkarte berri bat Iruñean, gazteek bulztatuta”... zorionak eman ondoren, belaunaldi bakoitzak bere historia eraiki behar duela azpimarratu du Majuelok. Ondoren, egindako lanagatik zorionak eman dizkio Lopez Adani: “Ez da egungo ohiko liburu bat, historiako material handi bat ekarri duelako. Denbora luzea beharko dugu liburu horren mamitik zukua ateratzeko”. Eta pozik agertu da, duela gutxi baino libreago aritzen garelako gai honi buruz hitz egiten.

Horrela jarraitu zuen Majuelok. Nola ikertu behar da gai hau? Metodologia-rekin. Nola egiten dugu historia denok? Dokumentuekin. Dokumentuak ez dira historia, historia egiten dugu guk dokumentuak erabiltzen ditugunean, eta ez dugu dokumentu asko eskura, horietako asko Poliziaren edo Guardia Zibilaren artxibategietan daudelako. Eta ditugunean, txostenak eta agiriak filtroarekin irakurri behar dira, beste edozein dokumentu bezala.

Baina dokumentuez gain, gai honek badugu altxor handia: ahozko historia, eta hura ondo erabilita, gauza asko emango digu. Gatazka honetan aritutako jende asko bizi da, baina denborarik galdu gabe heldu behar zaio iturri honi, eta ez bakarrik datu zehatzak lortzeko, baita arrazionaltasuna ekartzeko ere, batzuetan historia hau oso modu irrazionalean aurkezten baita. Badirudi militanteak munstro batzuk zirela, bakarrik terrorea eragin nahi zutela eta abar.

Eta nola jarraitu ikertzen? Aurreiritzi ideologikorik gabe, zeren eta historiako liburu asko, bereziki azken hamarkada honetan, ideologiaz beterik dago. *Beltza*-k berak duela asko idatzitako artikulua batean zioen bezala, guk ez ditugu errepikatu behar besteek egiten dituzten akatsak. Beste arazo asko ere badiara, adibidez kronologiarena: ETaren, indarkeriaren, ezker abertzalearen eta ezkertiarren historia azken 60 urteetako kontua da, eta ezin diogu erantzun homogeneous eman garai horri guztiari.

Terminologiaz bi hitz. *Beltza*-k liburuaren hasieran aipatzen du, ez dago terminologia neutralik, beraz, bakoitzak aipatu behar du zer terminologia erabiltzen duen, noraino iristen den horrekin eta zer erabilpena ematen dion. ETari buruz aritzean askok bakarrik erabiltzen dute terrorismo hitza, baina bada-kigu, termino oso orokorrak erabiltzen direnean oso gutxi azaltzen dute.

Joxe Arregiren gorpua. 1981ean hil zen Espainiako Poliziak egindako torturen ondorioz.



Niri bereziki interesatzen zait 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako gizarte mugimenduak eta ezker abertzalearen arteko harremana. ETA desagertu da, bere eragina gizarte mugimendu hauek gero eta txikiagoa izan zen eta, haietako batzuk desagertu edo aldatu dira. Baina mugimendu politiko sendo hark, ezker abertzaleak, gaur egun ere jarraitzen du, eta beraz, interesgarria da aztertzea zer harremana sortu zen mugimendu politiko-militarra eta beste gizarte mugimenduen artean.

“

Batzuetan etxeko transmisioa eten egiten da, pentsatzen dugulako eztabaida horiek txarrak direla”

Samara Velte

Eta bukatzeko, morala. Argudio historiko bezala baztertu egin behar dugu, zeren eta morala sartzen badugu historian argudio politikoa bukatu da. Historiak azaldu behar du gertatu denaren logika, deskribapenak bakarrik ez du balio. Egin dezakegu biktimen historia banan-banan, baina guri beti interesatzen zaigu zergatia: euskal gatazkaren historian, zergatik belaunaldi batzuek egin zuten borroka armatuaren apustu gogor hura.

Majueloren ustez, bada material asko gatazkaren historia indartsu bat egite-

ko, baina bere esanetan, oraindik bada hutsune handi bat: azterketa hori guztia historia sozialean kokatzea.

GALARDI: MEMORIA FEMINISTA, BIDEAK IREKITZEKO

26 urte ditu Maider Galardik eta zuhurtziatik ekin dio hausnarketari: “Nola ausartuko gara gu honi buruzko ikerketa egitera, errelato honetan gure alea jartzera, inoiz bizi izan ez dugun gatazkan?”. Lehen pertsona jarraitzen du berea aletzean:

Aieteko gertaerak aztertu diren kongresuan egon naiz eta han asko aipatzen zen memoria inklusiboa. Gero egitarauari begiratu eta %80 gizonezkoak ziren, eta %20 emakumezkoak, ohikoan moderatzaileak. Beraz, ez gara berdin ulertzen ari inklusibitatearen gaia.

Euskal gatazkaren iruditeria oso maskulinoa dugu, baina gaur egun konpartitzen ditudan espazioetan –adibidez presoak bisitatzeko Mirentxineko furgonetetan– aurpegi gehienak emakumezkoak dira. Edo ETaren biktima baten omenaldian, lehen lerroan emakume pilo dago eta gero, batez ere gizonek hartzen dute hitza.

Elkarrizketatu ditut 25 emakume, hainbat esparrutako biktimak, ETak hildakoak edo GALEk hildakoak. Ulertzen dut garai hartan parte-hartze politiko publikoa batez ere maskulinoa zela, baina uste dut, benetako memoria anitz, inklusibo eta eraikitzailea osatu behar badugu, begirada androzentrikotik harago egin behar dugula. Bestela, emakume hauen bizipenak ez ditugu jasoko eta haien bizipenak jasotzea esan nahi du gatazka batzuk jasotzea, adibidez, sexu, genero eta sistemarena. Sexu erasoak Kolonbian edo

Miguel Angel Blanco PPko zinegotziaren hilketaren aurkako mobilizazio bat. Euskal gatazkaren une gorienetako bat bizi izan zen orduan.



Bosnia eta Herzegovinan bakarrik gertatu direla uste dugu, baina Euskal Herrian ere izan dira, eta ez dira hain ezagunak.

Indarkeria psikologikoa, adibidez, arin-arin pasatzen dugu. Elkarriketatu ditudan emakume guztiek medikazioa hartzen dute uneraren batean. Galdetzen badiezu biktimak sentitzen diren, ezetz diote askok. Edo... zu politikoki aktiboa izan zara? Eta askok ezetz ihardetsi. Nola ez, zu presoen senideen taldean bazaude? Edo biktimen elkartean? Hori guztia ez al da parte-hartze politikoa?

Memoria inklusiboa izateko hori guztia aztertu beharko genuke. Memoria feministatik aztertzea ez da bakarrik emakumeari dagozkion gaiak aztertzea; esan nahi du, hala aztertuta irekitzen dugula bestelako indarkeria eta bestelako gatazka batzuei lekua egiteko bidea.

LOPEZ ADAN: BIOLENTZIAK KONDENATZEKO ERRAZKERIA

Labako solasaldiaren tituluak dio “nola kontatu euskal gatazka”, baina Lopez Adanek alderantziz egingo duela zehaz-

tu du, nola ez den kontatu behar euskal gatazka. Hemen bere azalpena, lehen pertsonan kontatua:

Bat, indarkeriaren kondena sistematikoa. Badakit Euskaltzaindiak ez duela biolentzia hitza onartzen, baina nik -keria entzuten dudak bakoitzean... “Indarkeria askatzailea” esaten baduzu, badirudi oximoron bat. Beraz, nik biolentzia erabiltzen dut, eta biolentzia guztiak kondenatzeko errazkeria ez da gure historia kontatzeko bidea. Kentzen bada mundu honetatik injustiziaren kontra borrokatzeko behar humanoa, morala eta etikoa... zer geratzen da historian?

Bi, historiaren ikuspegi batek azaltzen duenez, iraultza beti alferra da, iraultza gaiztakeria intrintsekoa da, eta ideia hori borrokatu behar dela uste dut. Gaur egun norbaitek iraultza egin nahi badu, hau da, egungo sistema hautsi eta beste bat egin, hori justifikatu ezina da, erreformaren bidez beti baitago aitzinatzeko modurik. Kapitalistek dirua egiten badute, gero lantegiak eraikitzen dituzte eta jaten ematen digute. Eta gainera,

iraultzaileek irabazten badute, beti inposatzen dute diktadura bat.

Hiru, ez dut ondo ikusten nola egin daitekeen errelato bakar bat komunitate osoa elkartzeko, adiskidetzeko eta borroka alboratzeko. Nik oraindik gure herriaren existentzia mehatxatuta ikusten dut. Klase borrokari begiratzen badiot, ikusten dut pobre askok ahaztu duela klase borroka hor dela, baina aberatsek ez dute ahaztu. Auresuposatzea kontatzen dugunak balio behar duela denak adiskidetzeko, manipulazio ideologiko eta mentala da. Nik ez dut inongo gogorik torturatzailerik defendatzen dituztenekin adiskidetzeko. Bada jende anitz gurekin politikoki ados ez dagoena, eta haien artean mespretxua, diskriminazioa edota biktimak sortzea... horri deitzen diot nik terrorismoa, besteari ez.

BI AIPU

Hasi eta hiru ordura amaitu zen solasaldia. Bazkalorduan jarraitu zuen. Jonathan Powell bitartekari britainiarrak ibilbide luzea du munduko hamaika gatazketan eta *Terroristekin hitz egitea. Nola amaitu gatazka armatuekin* liburuan elkarriketa eta negoziazioaren apologia ozena egiten du, bereziki konponbideari begiratu: “Eta gatazka hauspotzen dituzten injustiziak eta bidegabekeriak ulertzen ez baditugu, ez ditugu etengo. Hitz egin behar dugu, azken finean arazo politikoak diren horientzat, irtenbide politikoak bilatzeko”.

Joseba Sarrionandiak ere egin ditu gaiari buruzko hainbat hausnarketa. Carlos Gorrindo preso ohiaren *Funambulistaren beldurra* liburuaren hitzaurretik jasotako honek balio du euskal gatazka orokorrerako zein borrokan egon diren bando bakoitzaren barne memoriarako ere: “Nahi badugu iragana konprenitu ezin da Errelato bat inposatu, beste ikuspegiak entzun behar dira”. ●

1. FINALAURREKOA

ETXEBARRIA

Azaroaren 21ean, domeka, 17:00etan, frontoian

Gorka Pagonabarraga Agoria, Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia, Imanol Uribe Albizuri, Miren Amuriza Plaza, Onintza Enbeita Maguregi eta Paule Ixiar Loizaga Legarra.



www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI

TXAPELKETA

2021

Antolatzailea



Babesleak



Erreklamazioa



Loguntzailea



AIZU! HILABETEKARIA

Euskara ikasleen aldizkariak 40 urte

Urteurrenaren karietara, diseinua eta webgunea berriturik dator euskara ikaslearentzako AEKren aldizkaria. Berrikuntzen artean da, adibidez, *Aizu!*-ren harpidetza digitala egiteko aukera. Durangoko Azokan agertu zen lehen aldiz, eta horixe baliatuz, Landako Gunean ospatzen segituko dute berrogeigarren urtea.

 MIEL A. ELUSTONDO

1981ean sortu zen. 40 urte. Zenbakia, kasu honetan, ez da, besterik gabe, biblikoa, egiaren frogantza eta erakusgarri baizik. 40 urte bete ditu aurten AEKren *Aizu!* aldizkariak, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak euskara ikasten ari direnentzat argitaratzen duen hilabetekariak. Paper euskarriko aldizkaria ez ezik, *Aizu!*-ren webgunea ere berritu dute. Aldizkariaren koordinatzaile Eñaut Mitxelenak jakinarazi digunez, 40 urte honetan hainbat zaharberritze izan ditu aldizkariak, aldaketek irakurlearen mesedea izan dute beti helburu, eta oraingo moldaketek ere xede bera dute.

2021eko irail-urriko *Aizu!*-n gauzatu dute eraberritzea, Mitxelenaren hitzetan: “Aldaketa nagusiak itxurarekin lotuta daude. Aldizkaria irakurterrazagoa izan dadin, diseinu arin eta argiagoa du orain. Horretarako, besteak beste, irudiak garrantzi handiagoa hartu du”. Mamiaz den bezainbatean, berriz, aldizkariaren atal nagusiak egokitu eta berriak sortu dituzte. “Atal berriak, oroz gain, behe mailetako euskara ikasleei zuzendurik daude, eta esaterako, hileroko

galdera sorta labur eta arinak eskainiko zaizkie irakurleei kultur orrietako *Idazlea kontu kontari* eta *Musikaria mintzo* atalen bidez”. Esateak balio badu, esan dezagun Xabier Etxaniz Rojo idazleak eta Maite Arroita Jauregi *Murseg*o-k estreinatu dituztela gorago aipatu bi atalok. “Gainerakoan, edukiei dagokienez, ohiko gaiak lantzen jarraituko dugu *Aizu!*-n, hau da, kultura, gizartea, kirola, euskara, bitxikeriak...”. Edukiok euskara ikasten ari direnentzat berariaz moldaturik ari dira beti, “euskara ikasteaz batera, euskal kultura ezagutzeko bideak zabalduz”, aldizkariaren koordinatzaile Mitxelenak adierazi digunez.

Haatik, gorago esan dugunez, diseinua ez da AEKren aldizkariak abiarazi duen aldaketa bakarra, webgunea ere berritu baitu *aizu.eus* atarian. Mitxelenarena da hitza: “Orain arte, *aizu.eus* paperezko aldizkariaren erakusgarri izan da nagusiki; aurrerantzean, aldiz, elkarren osagarri izango dira paperezkoa eta digitala. Paperezko eduki asko bere horretan jarriko ditugu sarean; beste zenbait, aldiz, soilik harpidedunen eskura egongo dira”. Eta, esate baterako,

harpidetza mota berriak eskainiko ditu *Aizu!*-k, hau da, paperezkoaren harpidetza arruntaz gain, harpidetza digitala, edota digitala eta paperezkoa uztartzen dituen. Ohi denez, harpidetza digitalaren bitartez, hileroko zenbakia e-postaz jasoko du irakurleak pdf formatuan. Gainera, *Aizu!*-ren zenbaki zahar garai batekoak ere eskura izango ditu balizko harpidetza digitalaren egileak.

1981, SORTZEA

Urteurrena, bestalde, atzera begirakoa egiteko baliatu nahi izan dute aldizkariaren arduradunek eta, egia esan, urtegorrizko perlarik bada M. Egimendik hileotan *Aizu!*-ren orrialdeetan ondu duen 40 urteko ibili eta prozesuaren kronikan. Erramun Mendibelanda ageri da aldizkariaren historiaren hasieran.

1981 da. Alberto Ugarte zenaren izena ekarri du plazara Mendibelandak. “Hura Deustuko unibertsitatean ari zen Euskal Filologia ikasten. Era berean, euskara irakasle zen bertako Euskal Kultur Mintegian. Hainbat lagun bildu zituen, baita Arte Ederretakook ere, eta aldizkariaren asmoa abiarazi zuen”. Alberto Ugarte,

'Aizu!' aldizkariak 40 urte
beteko ditu abenduan
eta Durangoko
Azokarako zenbakia,
462.a, prestatzen ari dira.

DANI BLANCO



Erramun Mendibelanda, Jabi Ubierna... Askoren artean egin zuten aldizkaria, eta askoren artean erabaki zuten izena ere. *¡Hola!* aldizkariaren izenean inspiratu omen ziren *Aizu!* izena asmatzean.

Gaiak erabakitzen zituzten, zein artikululu zituzten aukeran kontsideratu... "idazkiak jaso eta erabakitzen genuen haien zabalera eta letra tipoa. Adabakiz betetzen genituen orrialdeak eta inprimategira abiatzen ginen. Inoiz, taxian!", Mendibelandak eta Ubiernak gogoan dutenez. Bada beste anekdotarik ere: "Behin, lapurrak sartu zitzaizkigun, udaltzainak etorri, eta nahas-mahas hura ikusi eta uste izan zuten lapurrek eragindako anabasa zela, kar, kar!".

Aldizkariaren lehen zenbakia kale-ratzea urtebeteko lana izan zuten, laguntza bonoak saldu behar izan zituzten asmoa gauatzeko.

1983, AEK-REKIN BAT EGITEA

Aizu! sortu eta bi urtera, berriz, urrats handia egin zuen aldizkariak, AEK-rekin bat eginik. M. Egimendik aldizkariaren orrialdeetan gidatu duen kronikan irakurri dugunez, garai hartan *Aizu!*-k eta AEK-k egoitza elkarbanatzen zuten, ezagutzen zuten elkar. Aldizkariaren sa-soiko koordinatzaile Iber Otsoarena da lekukotza: "Urte eta erdi generaman aldizkaria kaleratzen, zirt edo zart egiteko unea zen, *Aizu!*-k dedikazioa eskatzen zuen, baina horretarako, irakurleak eta harpidedunak behar genituen". AEKren buruetako Joseba Kanpo zenak *Aizu!* euskara ikaslearentzako tresna baliagarritzat jo eta aisa konbentzitu zuen koordinakundeko didaktika taldea. Alberto Gabikagojeaskoa eta Josu Naberan, besteak beste, eta gisa horretara egin zuten bat aldizkariak eta AEK-k.

Didaktika taldea konbentziturik ere, ordea, dudak ere izan ziren goiko mailan. AEKren batzorde nazionalak hartu behar zuen azken erabakia, eta, Otsoaren arabera, nekez konbentzitu zituzten arabar eta gipuzkoar arduradunak, "haiek uste baitzuten koordinakundea *Aizu!*-rekin batzea bilbotarren kontua zela". Bestalde, aldizkarian ere bazen kezkarik franko; bazuten kezkarik, agerkariak esku artetik ihes egingo ote zien. AEKn Joseba Kanporen kide zen Urtsa Errasti oroitzen denez, berriz, "guk [AEKk] ez genuen *Aizu!*-ren kontuetan sartzeko asmorik; ezta diru aferetan ere. Gainera, didaktika taldeko Josu Naberanek eta Gabikak [Alberto Gabikagojeaskoa], uste zuten aldizkaria oso

baliabide egokia zutela barnetegietan eta alfabetatze taldeetan erabiltzeko. Oso argi zekiten horrelako aldizkari bat behar zela euskararen irakaskuntzan laguntzeko". AEK-k, beraz, bere euskaltegi sarea eskaini zuen. Koordinakundek egitura ahula izanagatik ere, bat egiteak hein handian indartu zuen aldizkaria. 1983ko azaroan, lehen aldikoz, AEKren logoa ekarri zuen *Aizu!*-k azalean.

HAMABOSKARIA

1994ko abenduko zenbakia eta gero, *Aizu!* ez zen ondoko urtarrilean kalera-tu. Haatik, hamaboskari zela itzuli zen 1995eko otsailean, eta halaxe iraungo zuen 1999ko uda arte. AEKren Batzar Nagusiak aldizkaria zeharo iraultzea erabaki, eta itxura ez ezik, maiztasuna ere aldatu zuen *Aizu!*-k. M. Egimendi aldizkariaren historiaren kronikari jarraikiz irakurri dugunez, "1995eko otsailaren 1eko datarekin plazaratu zen 141. zenbakia", hots, hamaboskariaren lehenengoa.

Begi bistakoa izan zen aldaketa, gut-tiz nabarmena: "Aldizkariaren formatua, mantxeta, tukana [*Aizu!*-ren maskota] desagertzea, paper birziklatua...". Hilean bi zenbaki kaleratzeak kolaboratzaile sarea areagotzea ekarri zuen nahitaez, hainbat atal berri ere asmatu baitzituzten aldizkariaren gidariek.

Artean hamaboskari zela, hamabosgarren urteurrena ospatu zuen. Azal alai eta kolorez betea ekarri zuen 181. zenbakiak, eta 1995 hartako Durangoko Liburu eta Disko Azokara bi produktu



Erditzea zuzenean

"Behin, Buñuelera joan ginen Eneko Landaburu elkarrizketatzera, han baitzeukan atsedeen etxea. Etxeko irrati-kasetea eramaten genuen, magnetofoi handi bat, iza-tez, gure lanak grabatzeko. Argazki kamera, baten batek utzitakoa izaten zen. Autoa, aitarena. Landabururi egin beharreko elkarrizketa bukatu, eta etxe hartan bertan erditzen ari zen emakume bat ikustera gonbidatu gintuen. Esther Zarandona eta biok [Iber Otsoa] ginen han orduko hartan. Izugarri zirrargarria izan zen, oso polita, hunkituta irten ginen handik" (M. Egimendiren kronikatik jaso).

berri eraman zituen aldizkariak: *Dostai-zu!* jolas bilduma eta *Aizu, Paddy!* ipuin liburua. Lehenaz den bezainbatean, mintzamina lantzeko, hiztegia ikasteko eta jokalarien kultur maila aberasteko lau joko zituen *Dostai-zu!*-k. Bigarrenari dagokionez, Paddy Rekalde idazleak *Aizu!*-n argitaratuak zituen narrazioen bilduma zen. Harrera ezin hobea izan zuten bata eta besteak, agortu ere egin baitziren bi lanok.

Lau urtez hamaboskari iraun zuen *Aizu!*-k. Harrezkero, 1999ko azaroan, berriz ere hilero argitaratzen hasi zen, itxura bezainbat lantaldea berriturik.

AEK-KO IKASLE, AIZU!-REN HARPIDEDUN

Urte horretan bertan, 1999an gara, AE-Kren Batzar Nagusiak erabaki zuen bere ardurapeko euskaltegietako ikasle guztiek doan jasoko zutela *Aizu!* aldizkariaren harpidetza euskara ikasteko matrikula egitean. Izan zen besterik: "Besteak beste, talde finkoan lan egingo zuten ki-deak ez ezik, kolaboratzaileak ere beren lanengatik kobratzen hasi ziren, ordu artekoak ez bezala". Ana Unanue zen aldizkariaren koordinatzaile eta kazetari, eta Joseba Beramendi *Exprai*, berriz, diseinatzaile eta maketatzaile. M. Egimendik idatzi duenez, "bien artean diseinatu zuten aldizkari berria. Aldizkariaren bulego nagusia Bilbotik Iruñera eraman zuten, kazetariak hainbat lekutan kokatu zituzten: Ana Unanue, Iruñean; Iñigo Gago, Bilbon; Franck Dolosor, Baionan". Haiei laguntzen, bi lagun zeuzkaten: Gotzon Hermosilla, AEKren komunikazio bulegoaren arduraduna garaian eta Mikel Aldasoro, Nafarroako AEKren arduraduna.

Exprai gogoan duenez, "*Aizu!* erren-tagarri izateko zenbat modulu sartu ahal ziren eta zenbat saldu behar ziren kalkulatu genuen, edukiaren eta publizitatearen arteko proportzio orekatuari eutsiz, betiere". Ana Unanuek gogoan duenez, ekonomiaren kudeaketa ez zegoen euren esku. Bezero finkoak zituzten, AE-Kren euskaltegietako ikasleak, alegia, eta ez zioten zuzeneko salmentari arretarik eman behar: "Guk zatirik politena egiten genuen: aldizkaria bera. Nahi genuena egiteko askatasuna genuen, eta disfrutatu egiten genuen". Unanuekin bat etorri da horretan *Exprai*.

22 URTE

Ikasleak oinarri harturik zimentatu du bere ibili handia *Aizu!*-k. Ageri denez, hamalau aldaketa ere izan ditu bidean, eta, orain, 2021 honetako irailari dagokion zenbakian, berriz eraberritu du bere burua. Kasu honetan, gorago aurreratu dugunez, bitarikoa da aldaketa, paper formatuko aldizkaria ez ezik www.aizu.eus ataria ere berritu baitu.



Oraingo 40. urteurrena baino lehen, ordea, aldizkariak 25.a ospatu zuen 2007an. Balio du esatea, orduan, *Aizu!*-ren mende laurdeneko historiari buruzko erakusketa ibiltaria eratu baitzuten aldizkariaren arduradunek, eta zenbaki berezia ere argitaratu baitzuten 2006ko abenduan: *Aizu!* Durangoko Azokan aurkeztu zenetik 25 urtera, alegia. Zenbaki berezi hura, bestalde, ohi baino gizenago etorri zen, ohiko 42 orrialdeei 44 gehiago erantsi baitzizkieten, urteen joan-etorrian aldizkariari arnasa eman zioten langileen gorantz. Zenbaki berezi hartan, *Aizu!*-k historian argitaratutako 25na azal, gertakari, elkarrizketa, AEKomeria, komiki, iragarki, liburu eta egile bildu zituen.

Urteurrenaren kariatara, 2007ko ARGIA saria jaso zuen *Aizu!*-k, "euskarazko prentsa krisi betean zegoen garai hartan, aldizkari berri bat sortu eta bizi-arazte-kotan, oso argi eduki behar zen xedea: euskararen irakaskuntza bultzatzea eta euskara ikasten ari ziren helduei beren neurriara egindako komunikabide berria eskaintzea".

Hamabost urte igaro dira, eta 40 zenbakia dakar orain *Aizu!*-k. Kaleratu dituzte aldizkari eta webgune berrituak, eta berezia izango da abenduko zenbakia, Durangoko Azokan ikusiko duguna: "40 urte eta 462 zenbaki ez baitira alferrik pasatzen". Ezta isilik joaten utzi behar ere: *Aizu!*-k 40 urte. ●

'Komikaizu!'

Ezinbestean, irudiek garrantzi handia dute ezin aldizkaritan. *Aizu!*-ren hastapenetan, oro har, ohiko marrazki eta ilustrazioek ez ezik, komikiak toki nabarmena izan zuen 1988tik 1999ra bitartean, *Komikaizu!* argitaratu baitzuten aldizkariak. Komiki haietarik asko egileen izenik gabe argitaratu ziren. Garaiko *Aizu!*-n lan egindako Pernan Goñi Olalde marrazkilariarena da lekukotasuna: "Gaizki ikusia zegoen irudiaren jabegoa, curriculum osatu nahi izatea... Ni, izenpetzearen aldekoa nintzen, lanaren gaineko erantzukizuna hartzeko, [komikia] txarra zein ona izan. Ondo badago, zergatik ez meritu hori publikoki onartu, musikariarena edo idazleena bezainbat? Gisako eztabaidak izaten genituen". Haatik, komikiek sinadurarik ageri ez bazuten ere, lortu dute jakitea honako irudigileek lanik argitaratu zutela *Komikaizu!*-n: Jabi Ubierna, Mikel Mardones, German Maiz, Ion Arretxe, Alberto Uribarri, Napartheid aldizkariko hainbat kide, Rober Garay, Luis Duran, Ion Iñaki Artetxe, Pedro Rivero, Erramun Mendibelanda, Asier Esnaola... eta bi emakumezko: Bea Anitua eta Olga Zulueta.

BABESLEA:



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"

Antoine de Saint-Exupéry



ARGIAREN LIBURU AURKEZPENAK

Bidean

Aurrera egin nahi duen
irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izagirrek liburua
aurkeztuko du.

Azaroak 24

18:30ean

Larraul

Antton Amonarritz
Kulturgunean.



Txori urdinak

Espetxe sistemaren erretratu
bat Santi Cobos presoaren
bizipenen bitartez

Zigor Olabarriak liburua
aurkeztuko du.

Azaroak 27

11:30ean

Gasteiz

Gaztetxean.



Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Koldo Rabadanek hezkuntzaz edo
Zigor Olabarriak kartzelaz atera duten
liburuari buruzko hitzaldia antolatzeko,
idatzi azoka@argia.eus helbidera.

ERRIGORAKO SASKIEN IRABAZLEAK

Argia Jendearen artean bost otar
oparitu ditugu Errigorak emanda. Mila
esker zozketan parte hartu duzuen
guztioi! Hauek dira irabazleak:

Arrosa Borda Egia (Azpeitia)

Ander Agirre Dorronsoro (Mendiola)

Igor Maiztegi Benito (Gernika-Lumo)

Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)

Maddi Zubeldia Arozena (Ziburu)

ARGIAREN PRODUKTU BERRIAK

Denda irekitzera goaz

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez da denda konbentzional bat
lehen begiratura. Ez dago herriko
zentroan, ez du eskaintzaz eta az-
ken tendentziez betetako erakusleiho-
rik, baina pabilioi batean topa daitez-
keen era guztietako enpresen artean,
metalezko ate baten atzean ARGIAk
publikoari irekitako denda iraunkorra
prestatu du. Lasarte-Oriako egoitzan.

Atea ireki orduko topatuko dugu
azokako postua. Ematen dio goxota-
sun bat sarrerari, egunerokoan la-
nera doanarentzat ere, ziur, lantokia
erakargarriago eginez. Atondu dute
espazioa denda baten itxura eman
nahian, bezeroa etortzen denerako. Ez
oso era kargatuan, ARGIAren estiloan,
sinpleki, txikitik, bilatzen ari garena
lehen begiradan topatu ahal izateko
moduan. Aurreneko lerroan aurkituko
ditugu nobedade diren *Sendabelarre-
dakitena*; *Ilargia eta Landareak 2022
agenda*; *Bidean* eta *Txori Urdinak* li-
buruak; 2022ko egutegia, ilargiaren
egutegia edo *Xapoketan* puzzlea. Eta
ondoan, berrienak izateari utzi arren
interesgarri izaten segitzen duten
“Inor ez da ilegala” kamiseta, jertse
eta poltsak, “Lurra herriari deika”
kamisetak, *Bizi Baratzea* eta *Etxeko*

Landareak liburuak, *Gakoak 2021
Burujabetzak* liburuxka, *Xapoketan*
karta-jokoa, eta azken urteetan zehar
argitaratzen joan diren beste hainbat
liburu eta eduki.

Ez dago dendari bat eta bakarra.
ARGIAko langileak egoten dira bertan
eta denen artean egingo dute lan hori.
Txandaka, egunaren arabera. Goizeko
08:00etatik arratsaldeko 15:00ak bi-
tarte egongo da zabalik, astelehenetik
ostiralera. Dena den, inork beste ordu
batean joan nahiko balu, deitu eta hi-
tzordua zehazteko aukera ere badu.
Bezeroari ordainketa modu bat baino
gehiago eskaintzeko asmoz, datafonia
ere jarri dute, txartelarekin ordaindu
nahi duenarentzat.

Dagoeneko aurrez mezurik bidali
gabe zuzenean telefonoz hots egitea
besteren bizitzan muturra gehiegi
sartzea iruditzen zaigun gizarte ho-
netan, ARGIArentzat aurrez aurreko
harremana interesgarria da beti. Ar-
gia Jendea ezagutzeko aukera ematen
du, berak gu ezagutzekoa; solasaldi bat
izateko tarte irekitzen du. Salerosketa
operazio bat baino gehiago da. Geroz
eta urrunago dugin hurbiltasuna be-
rreskuratzeko ekintza. ●



MIKEL OLABARDE

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan dago denda, helbide honetan: Zirkuito ibilbidea 15.
Telefonia: 943 37 15 45. Idatzeko: azoka@argia.eus. Internetez erosteko: azoka.argia.eus

“

Senarra etxera iristen zen eta beti zegoen zerbait gaizki.
40 urtez eutsi nion, familiagatik...
Orain bizitzeko garaia da.

eta zuk... ikusten al duzu?

ADI DAGOEN GIZARTE BATEK BAKARRIK ANTZEMAN DEZAKE INDARKERIARIK EZKUTUENA



Azaroak 25, Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU
LLAMA, TE AYUDAREMOS



KEAK ETA HIPPYAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Keak ematen du usain berezi bat. Seguru asko kontserbatzeko teknika bat izango zen jakiak ke-tzea. Keak atzera ere eragiten du. Garai batean suaren epelean kea hutsala izango zen. Kearen usaina, hutsaltasun hori, gaur egun eraman ezina zaigu eta arropan eransten den kiratsa areago. Garai hartan jakiak ketu egiten ziren iraun zezaten. Gazta sasoi batean egiten zen, beste batean txerria hiltzen, arrainak beste sasoi batean. Elikagai horiek urte guztian eskuera izateko aukera ematen zuen ketzeak. Lehortu egiten du keak eta usteldurak eragotzi, baita intsektuak uxatu ere. Gaur egun ez dugu keztatze horren beharrik jakien kontserbatzeko; baina ke gustu horrekiko menpekotasuna oinordetzan jaso du gure ahosabaiak. Tamainan ketutako edozein jakik ahogozamena dakargu ahosabaia eta sudur-mintza bat egiten diren eztarri muturrera.

Sudur-mintza bera ere oroimenak berritzeko tresna ezin hobea da. Kearen dastak ahosabaia zirikatu du, baina usainek burua hankaz gora jar dezakete, erotzeraino. Nori ez zaio gertatu: usain bat aditu eta lelotuta, adurra dariola bezala gelditu, usain horren iturria ezin asmatu. Usainak dira gure bizitzako istorioetako sarraileen giltza. Beraiek garamatzate azkarren gure gertakizunen biltegira. Edo bizitzako pasadizo nabarmen bakoitzak usain bat du?



Patxulia (*Pogostemon cablin*). Gaur egun miraria da kalean patxuli usainarekin topo egitea. Niri oso gutxitan gertatzen zait eta beti manifestazioetan eta kale agerraldietan izaten da.

Ezagutzen dut bere usain garrantzitsuena kanelarena (*Cinnamomum verum*) duen jendea. Amonak prestatzen zuen arroz-esneak barruan zeraman kanela zotzarena eta gainazalean zuen kanela hautsarena. Nork ez du arnasa sakon hartu orbel berriaren lurrinarekin topatu denean? Zuhaitz arte ospel samar batera hurbildu eta onddo usain heze barnekorrak ez al du onddoarenak berak baino gehiago asetzen? Ni behinik behin bai!

Badut nik pituitariak adi-adi erne jartzen dizkidan lurrin bitxi bat. Gazte denboratako usain bat da. Beste mende

batean gazte hausle edo bide berrien urratzaile sentitzen ziren askok, bereziki hippyek, lurrin berezi bat zeramaten kokospean. Kopla handirik gabe ederki zipriztintzen zuten lepamagaletik belarri azpirainokoa. Eta nonahi nabarmentzen ziren. Patxuli (*Pogostemon cablin*) usaina zen. Gaur egun miraria da kalean patxuli usainarekin topo egitea. Niri oso gutxitan gertatzen zait eta beti manifestazioetan eta kale agerraldietan izaten da. Ez dut batere gustuko, baina agian gehiago erabili beharko litzateke. Kearen moduan, intsektuak behintzat uxatzen ditu... ●



HEMEN DAGO NAFARROA



SUGARAI

OIHANAK MODU JASANGARRIAN USTIATUZ EGURRA ATERATZEKO PROIEKTUA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Negu giroaren iritsierarekin, etxe askotan sutondoak piztuta daude dagoeneko. Baina, bala dakigu sua elikatzeke egurra nondik eta nola ateratakoa den? Nafarroa Behereko Hergarai ibarrean badute basoak modu iraunkorrean ustiatuz egurra ateratzeko kooperatiba bat: Sugarai. “2009an hasi zen abentura; ibarreko ate irekietan oihangintzaren eta egurraren gaiak jorratzeko bildu ginen biztanle multzo bat”, azaldu ditu hastapenak Peio Harlouchet kudeatzaileak. Bost urte eman zituzten proiektua finitzen, eta azkenean, 2015ean sortu zuten Sugarai kooperatiba, 104 partaiderekin.

EGURRAREN EKONOMIA (BIR)SORTZEN

Lau ardatz edo helburu zituzten kooperatiba sortu zutenean: oihangintzari berriz interesa ematea eta oihan jabeekin batera hura modu iraunkorrean kudeatzea; zirkuitu laburrean egurraren arloko ekonomia berpiztea; ibarrean enplegua sortzea eta oihan-jabe ere baziren laborariei baratzegintzatik haragoko diru-iturri bat ematea. “Berotzeko egurraren ustiapena izan zen abiatu genuen lehen gauza, baina hasieran lan ainitz beste enpresa batzuekin egin behar izaten genituen”, dio Harlouchetek. Gaur egun, ordea, prozesu osoa kooperatibak berak egiten du, eta lanaldi osoko bi lanpostu ditu. Egurra puskatuta eta xehetuta saltzen dute.

Baina, zer egiten du kooperatibak ustiapena modu jasangarriagoan egin dadin? “Diagnosticoko bat egin ondoren sartzen gara beti oihanetan, eta gure inguruneari dagokion materiala erabiltzen dugu, bazterrak eta pistak ez kaltetzeko”. Baso-lanetarako tresneria zein



eguraldia izaten dute kontuan, eta haien eremua egoitzatik gehienez 30 kilometrotara dute mugatua. Irigarritasun aldetik zailagoak diren zenbait mendi eremutan ere ari dira lanean, jabeek nolabait “utziak” zituzten oihan horiek ustiatzeko aukera eskainiz.

OIHANA BIRLANDATZEN

Duela bi urtetik, kooperatibaren beste ardatz bat oihanen birlandaketa da. Karbono isurketa baxuko zertifikazioa eskuratu dute, eta modu horretan, landaketak egiteko finantzaketa dute karbono isuriak konpentsatu nahi dituzten enpresengandik. “Denetarik landatzen dugu, espezieak nahastuz, oihanaren iraunkortasuna eta indarra segurtatzeko: pagoa, ametza, haritza, gaztaina, lizarra, zurzuria, izeia, pinua...”.

Etorkizun hurbilera begirako proiektuak ere badituzte esku artean. Hain zuzen, 2022ko primaderan serreria bat martxan jartzea aurreikusten dute. “Egurra hobeki balorizatzeko ideiarekin, bestelako gauzetarako ere erabiltzea da asmoa: burdinbideetako egurretarako, teilatugintzarako, tauletarako...”. Salmenta egiteko orduan ere 30 kilometroko muga dute jarria, zirkuitu laburreko filosofia biziki inportantea baita haien zat. “Gure helburua ez da multinazional bat bilakatzea, baizik eta gurea bezalako kooperatibak sortzea nonahi, ibar guzietan. Hurbileko egitura eta izaera duten tresnak garatu behar ditugu”. ●

ARGIAREN LIBURU AURKEZPENAK



Azaroaren 2an Donostiako udal liburutegi zaharrean aurkeztu zuen Garbiñe Larrea Iturraldeak ARGIArekin kaleratu berri duen *Sendabelarrek dakitena* liburua. Argazkia: Dani Blanco.



Sendabelarrek dakitena

Garbiñe Larrea Iturraldeak liburua aurkeztuko du.

🕒 **Azaroak 23** 18:30etan

📍 **Larraul** Antton Amonarritz Kulturgunean.

Zure herrian liburu honen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez atera duen liburuari buruzko hitzaldia antolatzeko, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

FORMOL LABORATEGIA

EZ DA GAZTEA IZAN BEHAR
GALDUTA EGOTEKO

Mikel Ibarguren, Edurne Azkarate eta Intza Alkain dira Formol Laborategiko kideak. Haien belaunaldiari buruzko *Album* antzezlanaren estreinatu berri dute Azpeitiko Antzerki Topaketetan, eta beste hamaika emanaldi iragarri dituzte dagoeneko. Zintzotasun ariketa bat egin dute, geruzak kenduz muinera heltzekoa, hortik egiteko haien kontakizuna, nahi duten eran ikertzeko gure izana eta nahi duten eran esateko esateko dutena.

 PERU IPARRAGIRRE  UNAI BELLAMY

Aulestiko ADEL ArteDrama Euskal Laborategia urteroko zita da antzerkizaleentzat. Jendea ezagutzeko eta gauzak martxan jartzeko lapiko aproposa, Edurne Azkarate Sobrinok (Oion, 1993) dioenez. 2019ko topaketetan antzokian sartzeko ilara egiten ari zirela joan zitzaion Mikel Ibarguren Egibar (Zestoa, 1995), *zerbait* egin behar zutela esanez. Ibargurennek eta Azkaratek lehenagotik ezagutzen zuten elkar, Kamikaz Kolektiboaren *Käffka* antzezlanean aritu ziren elkarrekin. ADEL-en ezagutu zuten Intza Alkain Ibarguren (Lasarte-Oria, 1995). Hari egin zioten *zerbait* horren parte izateko proposamena, topaketetan eskuratutako e-posta helbidera idatzita. Hirurek zuten *zerbait* sortzeko gogo. Azkaratek zuzendari lanetan aritu nahi zuen, esaterako. Gogoia eta grina edukita ere ez da erraza elkar-

tzeko unea eta modua topatzea. Aulestiko aitzakiari tiraka topatu zuten.

Donostiako Tabakaleran elkartu ziren lehen aldiz, eta asanbladak izan ziren lehen bilerak. Asanbladak erabakitzeke zer egin nahi zuten, nola egin nahi zuten. Zeretik hasten ari ziren, eta bide guztiak zabalik zeuzkaten. Estetikan eta kodeetan bazuten adostasuna, baina gaia falta zitzaien. Gazteen inguruan asko hitz egiten dela, orain *millennial* etiketa ere erabiltzen dela, haien belaunaldiaren inguruko gogoetetan topatu zuten esan nahi zutena. Hiru gazte prekariok haien kontakizuna haien ahotsetik kontatu nahi dute lehen antzezlanean. Ez dute, hala ere, belaunaldi osoaren bozeramaile izan nahi. Horregatik, pertsonaletik ari dira, haienetik.

Lehenago zeukaten erabakita lehen antzezlanaren bilakatuko zenaren izen-

burua taldearena baino. Askok ziren aukerak: Millennials, Matxura, MDMA, Formol... Elkartearen formalizatzeko garaia heltzean zirt edo zart egin behar eta Formol izan zen bozkatuena. Zentzua hartu du, ordea. Ez zioten “ekoiztetxe” edo “antzerki konpainia” abizena jarri nahi, hortik Formol Laborategia.

Elkartu eta berehala hasi ziren lanean. Lehen aldiz *zerbait* esateko aukera ere bada, nahi dutena eta nahi duten eran esateko: “Nabaritu da mikroa jarri eta botaka egiteko beharra”. Horretarako baliagarria izan da sortze-prozesua. Sakontasunera jo dute, horretarako borondateari eta arakatu nahiari jarraituz. Enpresa batek daukan ekoizteko beharra ez dute izan Formolen. Beste lan batzuetan ere ari dira aldi berean, eta nahi dutena egiteko plataforma da, presiorik gabe. Ekoizpenari dagokionez, makine-



ria industrial hori mantentzeko beharrik ez badute ere, egiten ari direna profesionalizatu nahi dute. Sare bat osatu dute haien inguruan, helburuetako bat baita jendeari lana ematea eta ordaintzea, eta gustuko dituzten artistekin harremanak egitea.

DENBORA ETA ESPAZIOA

Formol Laborategia sortu zuten urte berean Gasteizko udaleko Euskara eta Gazteria zerbitzuak eta Arabako Foru Aldundiak antolatutako Gasteizko Gazte Sortzaileak Beka jaso zuten. Horrela sortu zuten *Maketa* (2020) pieza laburra, *Album* antzezlanaren aurrekaria. Metrokoadroka Sormen Laborategiak lagunduta garatu zuten.

2020ko apirilean aurkeztu behar zuten *Maketa*. Covid-19aren pandemiak eta hari aurre egiteko neurriek bertan behera utzi zituzten asmo horiek guztiak, ordea. Bestelako lan batzuk aurreratzeko balio izan zien etenaldi horrek: elkarrearen paperak, dirulaguntzetarako deialdietara aurkeztu, testuak errepasatu...

Izan ere, hiruren artean egiten ari dira guztia, laguntzarekin eta babesarekin bada ere. Hutsetik hasi dira eta lan handia da. Alde artistikoa dago batetik, eta beste guztia bestetik: bilerak, programatzaileekin hitz egitea, ogasuna eta administrazioarekikoak, jantzitegia, ekoizle lanak, txostenak. "Prozesu guztiaren %15-20 izan da sorkuntza, beste guztia kudeaketa. Asko ikasi dugu".

2020an astebetez entseatu ahal izan zuten, Eztena jaialdiari esker, eta 2021ean bertan egin zuten *Album* antzezlanaren aurrestreinaldia, ekainean. Horrek balio izan zien haien jardunari epe bat jartzeko eta egiten ari zirena publikoarekin kontrastatzeko, erantzun bat jasotzeko. Horrekin batera, euskal antzerkiaren sortzaile berriei laguntzeko sortutako ZUBi egitasmoari esker hainbat egonaldi egiteko aukera izan dute. Egitasmoaren barruan egingo dituzte abiatu berri duten birako hainbat emanaldi.

Prozesuari garrantzia handia eman diote Azkarate, Alkain eta Ibarguren, eta horri denbora eta espazioa eskaintzeak ahalbidetu die egonaldietara heltea metodologia finkatu batekin eta poetika aski egonkor bat esku artean zutela. Zeharkako bidea izan da, eta antzezlanak izan behar zuena prozesutik atera dute, hasieran ez baitzeukaten testurik, eszenografiarik ez beste ezer.



Denbora hartu ahal izateak balio izan die antzezlanak behar zuena antzemateko intuizioa askatasunez entrenatzeko. Hain zuzen ere, ohikoan sortze prozesuak bestelakoak izaten direla azaldu dute: "Gaur egun dena frenetikoa da, eta horrela dago baloratuta: dirua ematen dizute eta justifikatu egin behar duzu, produzitu behar duzu, produzitu, produzitu. Batzuetan emaitzek produkzio usaina hartzen dute, eta pena da".

GAZTEEN INGURUKO AZTERKETA DA ALBUM, BEHINGOZ GAZTEEK EGINA

BELAUNALDI ALBUMA

Kontrako bidea egiten ahalegindu dira laborategian: geruzak kentzen eta kentzen, muinera heltzeko. Zintzotasun ariketa bat izan da *Album* sortzea, eta lanketa pertsonala eskatu die horrek aktoreei eta zuzendariari. Azkarateren estreinako aldia da zuzendari gisa, eta

dioenez egoera paregabea izan da, ez baita enkarguz egindako zerbait, eta ez baitu zuzendari gisa lan bila hasi behar izan, horretan esperientziarik eduki gabe. Lan egiteko gune aproposa izan da: "Banekien konfiantzazko espazioa izango zela".

Hiruren artean hartu dituzte erabaki asko, eszenan gertatzen zenetik osatu baitute dramaturgia. Entseguetan gertatzen zenarekin joaten zen etxera Azkarate, eta hori landuta ekartzen zuen bueltan, aktoreei jaten emateko, arraintxoei bezala. Dioenez, bazituen zeharlerro eta helmuga batzuk, eta lanerako metodologia diziplinatu bat ere izan dute, nahiz eta metodologia horrek ordutegi finakoak onartu ez. Asko oinarritu dira inprobisazioan, baina batez ere inprobisazioa amaitutakoan gertatzen zenari eman nahi zion garrantzia Azkaratek: "Intzak eta Mikelek haien burua galduta ikusten zuten eszenatokian eta elkarren beharra sortzen zen, zer egin erabakitzeko". Egoera horretan topatu dute bilatzen zuten egia. "Galduta egoitea" eta "egia" izan dira haientzat interpretatiboki interesgarriak izan diren kontzeptuak.

Galduta egotearen sentsazioa, ordea, ez da gozoa. Hala dio Ibarguren: "Eszenatokian galduta zaudenean eta zu zeu zarenean alarma guztiak pizten zaizkizu: egin zerbait, esan zerbait".

Bizitza ere hala ikusten dute, aktibo eta produktibo izatera behartuta gaude, aukera gutxi dugu galduta egoteko, edo besterik gabe, egoteko. Egin duten ariketa nagusia izan da hori guztia kendu eta egiazko zerbait atera arte 30 minutuz galduta egotea. Eraikitzen hasteko zero puntua topatu arte. “Espero dugu zintzotasun hori mantentzea, horren gainean sortu dugulako”. Emaizaren muina da ez dela lan errepresentazionala, baizik eta presentazionala. Egoerak berak agintzen du, egote horrek. Ez dago narratibotasun batean ekintza garraiatu behar duen pertsonaiarik. “Arriskatua da, baina ulertzen da, programatzaile askok galdetu digutenari erantzunez. Ez da superkomertziala, ez delako oso ortodoxoa antzerkigintzan gabiltzanontzat, baina gainerakoentzat izan daiteke”, dio Azkaratek. Zentzu horretan, euskal antzerkigintzako ohiko kode batzuk haus-ten ere ahalegindu dira.

Haien nahietako bat da publiko gaztea ere antzokietara erakartzea, publiko bat sortzen joatea. Hala ere, azpimarratzen dute ez dutela gazteentzako antzerkia

egiten: “Askok uste dute gazteentzako antzerkia egiten dugula gu gazteak gare-lako, baina 45 urteko jendeak gure iruditegi berdina dauka eta gure iruditegia ez du maneiatzen 13-14 urteko gazte bategu. Gu ez gara nerabeentzako antzerkia egiten ari, gure antzerkia helduentzako antzerkia da. Utziko diguzue mesedez zuen ligan sartzen? Ganoraz programatuak izaten? Gure ahotsa entzuna izan dadin espazio bat edukitzen?”.

Eztena jaialdian ikusle batek esandakoa ekarri dute gogora: “Ez naiz zuen belaunaldikoa, baina enteratu naiz mundu honetan bizi naizelako, baditudalako ilobak eta seme-alabak, eta ez da gaztea izan behar galduta egoteko”.

Album prestatzeaz gain beste lan batzuk ere egin ditu azken urtean Formol Laborategiak. Institutuetan mediazioak eskaini dituzte, bertako gaztetxo-entzako belaunaldiaren inguruko lanketa egiteko, eta EHU-n ere ikastaro bat eman dute, besteak beste.

DENOK GARA OSTRUKA


Zertaz ari da orduan, *Album*? Elkarriz-

ketaren amaieran diote agian ez dutela jendea antzokira erakarriko lukeen ezer esan, eta ea nola izango litzatekeen antzezlanaren sinopsi konbentzional posible bat: “Bi pertsonaia daude taula gainean, bat kaskoduna eta bestea motxiladuna, kartzela batean, arrainontzi batean. Gatazka asko dago hor barruan eta ezin dute bertatik irten, bizirik irautea da bide bakarra”. Belaunaldi gazteen inguruko azterketa bat da, behingoz gazteek egingo; azaleko garaiotan sakonera egindakoa.

Disko batean bezala, edo argazki-album batean bezala, piezaka doa aurrea antzezlanak. Hausten du antzerkian ohikoak diren hainbat elementurekin. Horietako bat da gatazka ez dela pertsonaien artean gertatzen, baizik eta haien eta arrainontzitik kanpora dagoenaren artean. Pertsonaien arteko harremana ez da espero dena, agian pertsonaiak beraien ere ez baitira espero dena. Bada aurreiritzien inguruko antzezlanak, norbere buruari buruzkoa ere. Zer egiten dute bi ostrukek arrainontzi baten barruan? Gaizki esaka hasi baino lehen, ikusi. ●



Meteoritoaren 600 urteko itzala



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Jordan ibaiaren arroa, duela 3.600 urte. Meteorito baten eztandak Tall El-Hammam Brontze Aroko hiria suntsitu zuen. Hori da Californiako Unibertsitateko arkeologo talde batek Jordani haranaren hegoaldeko aztarnategia aztertu ondoren ondorioztatu duena, *Nature* aldizkarian berriki azaldu dutenez.

Garai horri dagokion geruzan ezohiko materialak aurkitu dituzte: platinoa, iridioa, urrea, zirkonita eta kromita. Gainera, eraikuntza eta buztingintza materialak 2.000 gradutik gorako tenperaturak jasan zituztela ere ikusi dute, eta garai hartan gizakiak ez ziren gai tenperatura horiek eragiteko. Kuartzoa birrinduta aurkitu dute, oso material gogorra izan arren, giza hezurak erabat zatikatuta eta zenbait landare arrasto mikrodiamante bihurtuta. Eta froga horiek guztiak aintzat hartuta, duela 3.600 urte gertatutakoa berregin dute.

Tall El-Hammam 8.000 biztanleko hiri handia zen, antzinako Jerusalem bera baino askoz handiagoa, inguru haietako gune ekonomiko garrantzitsua. Biztanleek ziur asi ez zuten ikusi ere egin 50 metroko diametroa zeukan bolidoa, 61.000 km/h abiaduran gerturatu zitzaielako. Arroka izotzua argitu egin zen atmosferarekin bat egin zuenean, eta 4 bat kilometroko altueran eztanda egin zuen. Segundo gutxira, talka uhina iritsi zen hirira, eta 1.200 km/h haizea eragin zuen. Hala, segundo gutxitan hiria eta biztanleak guztiz suntsitu zituen eztan-



ALLEN WEST ETA JENNIFER RICE

Duela 3.600 urte inguru Tall El-Hammam hiriaren gainean eztanda egin zuen meteoritoaren errekreazioa.

dak, eta minutu eskasean suntsipena 25 km inguruko itzulenguruan zabaldu zen; besteak beste, handik 22 kilometrorra zegoen Jeriko hiriari ere eragin zion meteoritoak.

Hurrengo sei mendeetan, hiria bera eta inguruko beste 120 nukleo populatu abandonatuta egon ziren. Meteoritoak inguru haietako lurren eta uren hiper-

gazitasuna eragin zuen, nekazaritza jarduera galaraziz; Itsaso Hilaren gazitasun maila handia hortik datorrela ere uste dute arkeologoek. Biztanleria oso gutxi hazi zen mende horietan, eta abeltzaintzan oinarritutako bizimodu erdi nomadara itzuli ziren. Segundo gutxi horietan gertatutakoaren ondorioak 600 urtez luzatuko ziren. ●

1.300 urteko eski pare

2014an izotzetan ondo kontserbatutako eski bat aurkitu zuten Digervarden-en (Norvegia). 187 cm luze eta 17 cm zabal den piezak oinarentzako larruzko lotura ere oso osorik zeukan aurkitu zutenean, lehen aldia zen Norwegian hain ondo gordetako eskia aurkitzen zutela lehenago beste bat aurkitu zuten Finlandian. Karbono 14aren arabera, 750 urte inguruan egin zuten eskia.

Bada, joan den irailaren amaieran, *Secrets of the Ice* proiektuko kideek beste eski bat aurkitu zuten toki berean. Eskia izotzetatik atera eta duela 7 urtekoaren ia berdina dela ikusi dute. Hau da, pare osatu dute. Albiste pozgarriak, ordea, badu alde txarra: arkeologoen ahaleginaz gain, horrelako aurkikuntzak izotzak urtzen ari direlako egiten dituztela. ●



CHRISTOFER NILSSON / SECRETS OF THE ICE

ARGIA EGUTEGIA 2022

*Egunero efemeride bat.
Burujabe garez, historia guk ere idatz dezagun.*



10€
+4€
bidalketa
gastuak

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik
08:00etatik 15:00etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).





LIBURUA

Amaia Ezpeldoiren azkena



DANI BLANCO

EURI ZITALARI ESKER

ITXARO BORDA

SUSA

AMAIA ALVAREZ URIA

Susak argitaratu duen seigarren eta azken abentura du honako hau Amaia Ezpeldoik. Izan ere, erretiroa hartzea erabaki du, Joana Garralda, bere maitalearekin, Atharratzeko base-rri batean “baratzea, ogia eta amodioa” egitera joateko.

Hertzainak musika taldearen kantua erabiliz izendatu zuen Itxaro Bordak landa eremuko detektibe honen lehen liburua, (*Bakean ützi arte*, 1994), eta Itoizen kantu batean ardazu duen lana izango da bildumari amaiera emango diona (*Euri zitalari esker*, 2021). Bien artean *Bizi nizano munduan* (1996), *Amorezko pena baino* (1996), *Jalgi hadi plazara* (2007), eta *Boga boga* (2012) argitaratu ditu.


Danele Sarriugartek egileari berriki ARGIArako egindako elkarrizketan

irakur daitekeenez, detektibe nobelek aukera ematen dute kritika soziala egiteko eta hori egiten du Bordak bilduma honekin, liburu bakoitzak salaketa bat eta garaiko argazki bat biltzen dituelako. Oraingoak sexua, biolentzia eta familia ukituko ditu; generoa, klasea, arraza eta beste zapalketa batzuk gurutzatuko dira pertsonaietan, botere harremanak eta horien ondorioak mahai gainean ipiniz.

Bildumaren hasieran bakardadea eta malenkonian nagusitzen baziren, azkenekoetan armairutik irten eta komunitatearen parte bihurtu ostean, zoriontasuna eta lagunartea topatuko ditu protagonistak. Gainera, azken lan honek aurreko lanetako kasuak, lekuak eta pertsonaiak agertuko zaizkigu, gaztaro-ko eta helduaroko errepasoa eginez eta zahartzarorako prestatuz.

Euskalki guztiak agertu dira bilduman, hasieran banaka eta amaieran “euskara post-batura helduz” egilearen hitzetan. Literaturak hizkuntza du lehen-gai, eta euskal literatura garaikidean gu-txi dira hizkuntzarekin hain erraz eta emankor jostatzen diren sortzaileak: berba zahar (‘egari’) eta berriak (‘gugeltu’) topatuko ditugu orriotan, hizkuntza-aldaerak, eta hitz joko ugari.

Bidaia eta nomadismoa ere oso presente egon dira, eta lokalaren eta globalaren arteko uztardura jolastia, besteak beste, *Twin Peaks* eta Pier Paul Berzaitz aurkituko ditugu kapituluetan barna; euskal baladen oihartzunarekin batera, Landetarako joan-etorria egingo dugu. Eta orain zer gertatuko da euskal detektibe literario honekin? Agian bilduman oinarritutako telesail bat... ●



MUSIKA

Mondraueko musikaren arkeologia



EZ DONK AMAITU ASKOREN ARTEAN AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

Arrasaten jardunaldi oso bereziak antolatu dituzte azarorako. Herriari jaio berri den Ez Donk Amaitu izeneko ekimenak, punkaren iragana, oraina eta etorkizuna balioan jarri nahi duenak, Arrasateko 80ko hamarkada nolakoa zen erakusteko, gogoratzeko eta ikasteko hainbat ekintza antolatu ditu. Horien artean nabarmentzekoak dira *80ko urteiek Mondrauen* erakusketa –Kulturare aretoan azaroaren 27ra arte–, rockaz antolatu dituzten hiru mahai-inguruak –rocka eta feminismoak, rocka eta euskara, eta rocka 80ko hamarkadan–, eta udal antzokian eskainiko dituzten lau dokumental.

Ez Donk Amaitu ekimenaren bultzatzaileak tematu dira 1980tik 1989ra

bitartean Arrasaten zuzenekoak egin zituzten bertako rock taldeak azaleratzen. Agertokira gutxienez behin igo ziren ia 30 talde zenbatu dituzte, baina haietako batzuetatik oroitzapena besterik ez da gelditu. Aldiz, 21 talderen kantu bana berreskuratu –hala moduz grabatuak asko– eta bandcamp batean batu dituzte, sarean (<https://ezdonkamaitu.bandcamp.com/>).

Ezin da ukatu horietatik gehienek punka egiten zutela eta gaztelaniaz, baina badira eremu horretatik kanpo daudenak ere: rock indartsua euskaraz lantzen zuten Los Pichones (RIPeo Bolinaga anaiak tartean) eta SS-77; pop-rocka ikur zuten Subito Rubor eta Stress; Matrona Impudica after-punk erregina; eus-

karazko hardcore-punkaren aitzindari Eskoria-Tza; Oi!aren bidea zabaldu zuten Puñetazo, Zakarrak eta Vioch-R; DDDP (Discipulos de Don Pablo) heavy-rocka egiten; rock kaletarra aldarrikatzen zuen Malaña; ska-rocka dantzatzeko zuten Diputación Coral –Bolinaga anaiak hemen ere tartean–. Eta punkean murgilduta zeudenen artean, honako hauek: lehenik eta behin RIP taldearen aurrekari izan zen Doble Cero eta RIP bera, jakina. Eta horien ostean, emaitza oparoko Naska; bi kontzertu soilik eman zituen Extorsion supiztailea; Pabellon Negro oinordekoa; Cirrosis trauksila eta gordina; melodiak ere lantzen jakin zuen Heriotza; eta auzuneetako ahotsa ziren NSD (Napoleón Se Descojona) eta Último Recurso. ●



Eskerrak bidearen bideari

 XALBA RAMIREZ  UNAI PELAYO

Ibil Bedi nafarrek duela bederatzi hilabete kaleratu zuten *Beltxarga Beltza* lana. Eurek grabatuta, eurek kaleratuta, autogestioa etxean kozinatzearen parekoa da beraientzat. Gertuko kan- tekin egin dute, lur usainarekin, baina hegoak zabalik, bideari emanak hegan egiteko prest.

Ibai Osinaga gitarra joleak idatzi zidan otsaila hartan. Ea Physis versus Nomosen *Konpromezu* kanta jotzen ahal zuten, zuzenekoetan. Guk, mesedez, a ze galdera. Eta ordutik, elkar mireste (a.k.a peloteo) moduko batetik, kolaborazio aitzakia bila. Emaizta: asteburu bakar- rean lau kontzertu elkarrekin. Kanbo- ko gaztetxean, Añorgako zinema zaha- rrean, Zarauzko Putzuzulo Gaztetxean eta Ondarroako Beikozini.

Argi zegoen; gaualdi guztietan Ibil Bedi protagonista. Indartsu harrotu du-

telako urtea nafar gazteek, ereserki sor- ta batekin, eta 47 kontzerturekin hamar hilabeteen. Entzungo zenuen honezkero, 2021 ekialdearena da.

Eta eki, ekialdea. Iruñeaz gain, Irun- berri, Zangoza eta Erriberritik datoz, jotara gerturatzen saiatuz, bertsioetan zein kantuen esentzietan. Popa egiten dutela diote, baina badute popak gutxi- tan eskaini izan duen errotze hori.

Euren kanten barnean moldaketak egiteko gaitasuna, *Enegarrenez*-i bate- riak sartuz edo *Ihesean*-i (nire favorito berria) Kiwanukaren estiloko mugimen- duarekin, Amets Aranguren, lehen aldiz instrumenturik gabe, mikrofonoa esku- tan kantuan.

Areta Senosiain biolin joleak, badaki non indartu nota luzeak eta noiz jolastu pizzicatoarekin. Javier Larrañeta baxu joleak bere lekua ondo hartu, eta ez du

IBIL BEDI

NOIZ: azaroak 4, 5 ,6


NON: Kanboko Emaizta gaztetxea, Donostiako Añorgako zinema aretoa, Zarauzko Putzuzulo, Ondarroako Beikozini

askatuko erritmoaren eta armoniaren arteko zubi lana. Eta Eder Escalera ba- teria joleak neurria hartzen die kantei, are, bi bateriekin jotzean, umorez eta irriz jolasten.

Kanta sorta ederra du taldeak. Baina, irudipena dut, onenak oraindik etortze- ko daudela. Ikusi besterik ez dago zer egiteko gai diren Senosiain eta Aran- guren, biak bakarrik eszena betez. Edo Osinaga, gitarraz soilik, Putzuzulo erdia erdi negarrez utziz.

Bideari eskerra ematen dioten musika- riek dena dute alde. Ez dutelako horretaz gain ezer bilatzen. Izan fama, izan dirua. Bidea maitatzearen ondorioz, topatzen dutenari arreta jartzen diote, eta leku eta bide berriak asmatu. Horra hor nafarren arrakasta. Eta ez dago ezer ederragorik musikari gisa miresten zenuen hori lagun gisa mirestera igarotzea baino. ●

Gurutzegrama




EZKER-ESKUIN:

1. Era, modu. / Talka, topekada. 2. Lehor, agor. / Zaldiak aldatzeko tokia. 3. Katolizismoari dagokiona. 4. Igotzeko moldatuta dagoen landare. 5. **Argazkiko abeslariaren izena.** / Mirabe lana. 6. Begirunerik gabe jokatzten duena. / Bekatu egin ohi dutenak. 7. Athleticeko jokalaria. |Aproja. 8. Ez handi ez txiki. / Oinaztarri, lurrera erortzen den tximista.

GOITIK BEHERA:


1. Apur, ezdeus. / Osasunaren Mundu Erakundea. **2.** Olerki lirikoak. / Zimur. **3.** Teniente. **4.** Garbiketako produktuak saltzen diren denda. **5.** Musika nota (alderantziz). / Nagi. **6.** Pilotan, tanto ziurra. / Arabiar izenetan, seme-alaba. **7.** Norbaiti egokitzen zaion parte. **8.** Guztiz, osoro. **9.** Platinoaren ikurra. / Nafarroako eta Zuberoako basoa. **10.** Eusko Alderdi Jeltzalea. / Itsas arrain. **11.** Bakoitzak bat. **12.** Egoi, erara. **13.** Tinko, irmo. **14.** Gau belea. **15.** Ahuntzaren ar.

Sudoku



Esaera zaharra


KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Uhina
Taxu, molde
Zerrenda
Jauzi
Hizketa, berriketa
Burusoila, karsoila
Ogi txikia
Buruaren aldea
Zapi, ehun
Zurezko pieza laua
Lurburua
Ellipsea
Ilea

**EBAZPENAK**

ESKER-ESKUN: 1. MOLDE, TOPE, 2. IBOOR, POSTA, 3. KATOLIKO, 4. IGOKARI, 5. INES, MIRABETZA, 6. OZAR, BEKATARIK, 7. MUNAIAN, TUNANTZ, 8. ESTIAN, OINAZKAR, **GOTIK BEHERA**: 1. MIKO, OME, 2. ODA, IZUR, 3. LOTINANT, 4. PROGERIA, 5. LOS, 6. P, 6. BIN, 7. TOKAMEN, 8. OSORIK, 9. PT, IRATI, 10. EAJ, ATUN, 11. BANA, 12. ERAZ, 13. TINK, 14. ZATA, 15. AKER.

Miren Azkarate Badiola

MALETADUN HAURREN
KONTAKIZUNA



TORTURA, KARTZELA, ERBESTEA

Jaio orduko, beste askori bezalaxe, gatazka politikoak bizitza baldintzatu zion Miren Azkarate Badiolari. Aita iheslaria izateaz gain, berak ere bost urte egin ditu espetxean Espainian. "Irakaspen handi bat da espetxealdia. Baloreen eskala irauli egiten du eta irteten zarenean gauzak askoz argiago ikusten dituzu. Nik oso argi dut zer nahi dudan, eta baita zer ez dudan nahi ere". Irribarrea eta ilusioa ez ditu galdu ordea, aitak bezala berak ere inkomunikazioa eta torturak jasan arren. Tre-bea da solasean eta are trebeagoa kontatzen. "Aitaren kasua ezaguna zen polizia taldeen artean, nire torturatzailleek bazuten bere berri. Bederatzi egunez bere izena ere ez baitzien esan komisarian. Aitaren figurarekin ere ni suntsitzen saiatu ziren". Zorionez, ez zuten lortu.

"Maletadun haur, nerabe eta heldu sentitu naiz"

Askotariko egoerak bizi izan dituzten euskal iheslari eta deportatu politikoen seme-alaben testigantzak biltzen ari da Miren Azkarate Badiola donostiarra, liburu batean argitaratzeko. Konparatzeko inolako asmorik gabe, "ezberdinak baitira espetxeratuak eta atxilotuen haurren sentazio eta bizipenak". Elkarrizketak entzuten eta transkribatze lanetan ari zela itzuli da 33 urtez Kuban erbesteratua izan duen aita, Agustin Azkarate. Ziklo baten itxiera izan daiteke, eta baita beste ziklo baten hasiera ere: urtetan itzalean egon den aita, "pertsona ezezaguna", bere lekuan jartzearen zikloa.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Euskal iheslari eta deportatu politikoen seme-alaben bizipenak biltzen ari zinela itzuli da zure aita Kubatik.

Hala da. Banuen arantzatxo bat gaia-rekin eta lekukotasunak biltzeari ekin nion orain dela hilabete batzuk. Ikusezinak ginela iruditzen zitzaidan, urtetan iheslariak eta deportatuak silueta beltzarekin irudikatu izan diren gisan. Ez izenik, ez abizenik. Oso egoera eta bizipen ezberdinak pizten ditu guraso bat preso edukitzeak edota sekretupean gorde beharreko leku ezezagun batean ukaiteak.

Gehienetan, etxekoek kokapena jakin arren, ezin izan diote inoiz inori esan, noski. Konparatu ezinak diren bi egoera ezberdin dira eta nik gurea azalertzeko beharra sentitzen nuen. Motxiladun haurren plataforma sortu zenean asko poztu nintzen, ekimen garrantzitsua baita. Ikusarazi egin behar da haur horiek pairatzen dutena. "Baina gu non gaude?" pentsatu nuen nik. Ez bagara existitzen ez gaude, ez gara. Hemen gaude eta bagara ordea, eta badugu zer kontatua.

Zazpi egoera bildu dituzu, topatu al duzu elementu komunik haien artean?

Bai, min eta arantza berdinak ditugu denok. Erradiografia zabal bat egin nahi izan dut. Izan ere, iheslarien eta deportatuen munduan hamaika errealitate dago. Leku ugari bildu nahi izan ditut, baitetik Ipar Euskal Herria, noski, eta bestetik Kuba, Mexiko, Venezuela eta Cabo Verde. Horrez gain, beste pare bat ditut lantzeko amaitu aurretik, batzuek sufritzen segitzen baitute oraindik. Suitzan dagoen iheslariaren kasua adibidez. Haren haurrak ere badu zer kontatu. Harrera beroa egin didate denek. Gaiaz hitz egiteko gosez sumatu ditut. Ikusezin izanaren sentazioa nagusitzen da haiengan, zerbaiten parte izateko beharra. Gainera, kalera begira gaia tabu izan denez, gehienen kasuan etxean ere hala izan dela iruditu zait. Familia bereko haurren artean ere, anai-arrebek ez dute haien artean gaiaz hitz egin. Etxe berekoen lekukotasunak oso ezberdinak dira.



"Amak dira gatazka politikoaren kontakizunean ahanztura handiena pairatzen dutenak. Aitorpen publikoa behar dute".

Espero ez zenuenean itzuli da aita.

Jaio nintzenean Hendaian zegoen, iheslari. 2 urte nituela espetxeratu egin zuten eta kalera atera zenean berriz torturatu izateko beldurrez egin zuen ihes Kubara, 4 urte nituela. Geroztik, bost bider bakarrik joan ahal izan dut bera ikustera. 6 urterekin lehen aldiz, hiru bider 6 eta 28 urte nituela azken aldiz. Ni ere torturatu eta atxilotu ninduten, beraz, hamar urtez ezin izan dut. Urte horietan guztietan, "bi urte barru han izanen naiz" entzun izan dut. Azken honetan ordea, hiru aste lehenago jakin genuen bere erabakia irmoa zela eta bazetorrela. Behingoagatik egia zen. Oso aste arraroak izan ziren. Poza, urduritasuna eta beldurra nagusitu ziren nire baitan. Badaezpada ezin genion inori esan, eta berriz isiltasun horretan bizitzeak barruak mugitzen zizkidan. Orain hemen dago eta gure arteko harremana sortzen ari gara, hutsetik. Ez dakit nolakoa izanen den, ikusiko dugu.

Zure historia ere jasoko duzu liburuan?

Ez nuen nire lekukotasuna liburuan sartzeko asmorik, baina gauzak gertatu

diren gisan argialetxeak egiteko eskatu dit eta aitortu behar dut oso zaila egin zaidala. Barrenak askatzeko bakkarkako ariketa berezia izan da.

Urte hauetan guztietan gogoratu behar izan al diozu zure buruari aita bat duzula?

Hau oso konplexua da. Zer da aita bat? Bai, nire aita da, harro nago dudana aitaz, baina ez dut ondoan izan. Nire egunerokoan ez du parte hartu, nire egunerokoan ez da inoiz egon. Zerbait kendu dizutenaren sentsazioa ukaiteko zerbait hori ezagutu behar dugu, sentitu, eta nik ez dut hori ukan, beraz, faltarik ez dut sumatu. Nire familia ama, anaia, amona eta izeba izan dira. Eta gero gainontzeko iheslariak, niretzat aita/osaba papera izan dutenak. Beraz, bai, aita da, baina zer da aita bat? Bere odola dut, baina kito. Hori, nire kasuan. Baina ez da berak nahi duelako izan. Bortxazko egoera bat izan da, ez du berak aukeratu. Oso zaila da. Itzuli da, baina pertsona hori ez dut ezagutzen. Askok jota bidaietako tarte horietan egon naiz berarekin. Eta gurea ez da salbuespen kasu bat, gisa horretako

bizipen eta izuak ere asko aipatzen dira bildu ditudan lekukotasunetan.

Ama...

Bai, bikotea, gehienetan emakumea, gelditu da etxean, haurren heziketaren eta zaintzaren eta gainontzeko guztiaren arduradun. Libururako baturiko lekukotasun guztiek azpimarratzen dute amaren figura. Kasu hauetan amek egin dute dena. Haiek dira gatazka politikoaren kontakizunean ahanztura handiena pairatzen dutenak. Aitorpen publikoa behar dute dudarik gabe, eta uneren batean eginen zaiela pentsatu nahi dut. Nik seme-alabak hartu ditut hizpide, baina amen errelatoa biltzera animatuko den inor egon dela pentsatu nahi dut.

Liburuaren izenburua argi duzu?

Ez erabat, baina pentsatzen hasi nintzenean ohartu nintzen bizitza guztian maletadun haurra izan naizela, maletadun haur, nerabe eta heldu sentitu naiz. Eta motxiladun haurren metaforari jarraiki, errelato berberaren parte baikara denok, hori bera bururatu zitzaidan: "maletadun haurrak". Datorren urtean, lanak argia ikusten duenean argituko da misterioa. ●



Hernaniko apaiz pederasta saritu dute bere ibilbideagatik... musikan



Cesareo, "Umeekin meza egiteko kantak" diskoaren aurkezpenean.

Inork ere ez zuen espero apaiz bat sexu-abusuengatik salatua izatea, eta are gutxiago Eliza Katodikoak salaketa horiek ezkutatzeari, "denetan ere erakunde gardenena delako", Vatikanoko Musika Akademiako kideek azaldu dutenez. Edonola ere, Cesareo Gabarain hernaniar apaiz pederasta saritzea erabaki dute, "musikan egindako ibilbidea eta bizitza pertsonala bereizi behar direlako". Alegia, "bereizi behar dira artista eta pertsona, bi gauza arras desberdinak, elkarrekin loturarik ez dutenak.

Ume batzuk bortxatu zituela, tira, bai, baina altxa dezala eskua bekatutik libre dagoenak. *Juntos como Hermanos* edo *La muerte no es final* kanta enblematikoei aitortza merezi dute. Ados, bai, bigarren hori Espainiako Armadak himnotzat hartu eta "Espainiarengatik bizitza eman dutenen omenezko" ekitaldian abesten zuten, baina altxa dezala eskua parrandaren batean horrelakorekin batekin dantzatu ez duenak. Abenduaren 6an jasoko du Gabarainek ohorezko Urrezko Txirula. ●


Dutxan ur hotza ateratzen hasten denean



@MERCHEIGLESIASC | TWITTER

SAREAN ARRANTZATUA

Txartelak airera!




Euskal pentsamendu garaikidea



@ AMETS_GILE | TWITTER

Chill.ardegi



JUAN ZUBIA | FACEBOOK



92 orrialde

Bidean

Aurrera egin nahi duen
irakaslearen dekalogo

Koldo Rabadan Izaguirre

Zoriontasunak barrutik kanporako bidea egiten du; nekez egingo gaitu kanpoko edukiak zoriontsu. Garenak egingo gaitu nor, eta garen horrek, sentitzen dugunarekin lotura zuzena du, emozioekin erlazio banaezina. Emozionatzeko gai diren eskolak behar ditugu, eta zirrara sortzeko gai diren irakasleak. Bazatoz?

14€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



**txikitik
eragiten!**

azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

 **ARGIA**



Sendabelarrekdakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea



248 orrialde

25€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

txikitik
eragiten!



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik 08:00etatik 15:00etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



ARGIA

BIZI BARATZEA